



IULEN MADARIAGA

«Sobera izan da dena, baina bizirik nago»

*Egiari zor, ETAko
lehen buruzagiaren
testigantzak*



- **Gorka Lekaroz** «Euskara konnotazio ezkorrik gabe bizi duten erdaldunak behar ditu Nafarroak»
- **Cristina Uriarte** «Hurrengo legegintzaldi batean LOMCEk aldaketak izango dituen esperantza dugu»
- **Net Hurbil** Bogotako alkatea, hondakinen lobbyekin borrokan
- **Mursego** «Arraroak musika kultura besterik entzuten ez dutenak dira, ez ni»
- **lhesi** Kobazuloetara bidaia

EKAINAK 8

GIZA-KATEA

ELKARLANEKO JARRAIPENA



Hainbat hedabidek elkarlanean erabakitzeko eskubidearen aldeko giza katearen jarraipena egingo dugu,

Ekainaren 8an, goizean goizetik hasita, plataforma anitzetan.

naiz: berria goiena" 4amaika 2argia Piztu ahötsa orroso

Irroti sareo

hitza^{info}



INFO



Librean
Zuzenekoak

kolosaldeko
ataria



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko ekainaren 1a, 2.417. zenbakia

ASTEKO GAIA

EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Posible da PSNrik gabeko gobernu alternatiba.

XABIER LETONA, MIKEL ASURMENDI / 4

● Ultraeskuinaren itzala Europako hemiziklo nagusian.

URKO APAOLAZA AVILA / 8

● **IRITZIAK** ASIER BLAS MENDOZA, AINHOA LARRAÑAGA / 7

PERTSONAIA

IULEN MADARIAGA: «Armak edonori entregatu ahal zaizkio, salbu Madril eta Paris». XABIER LETONA / 10

GAIK

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Gaixotasun degeneratiboari ez diote batere laguntzen murrizketek. ITSASO ZUBIRIA / 15

IRITZIAREN LEIHOA

ERREAKZIOAK JUNE FERNANDEZ / 16

JAVIER CIGA: EUSKAL BASERRITARRAK ARTEAREN HISTORIAN

SARTU ZITUEN ARTISTA FERMIN ERBITI ZABALZA / 18

HERIOTZAREKIN BIZI BAI, BAINA EZ DAKIGU HERIOTZA BIZITZEN
NORA BARROSO / 19

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 17

TXANDAN Maitasun giltzarrapoak. EDU ZELAIETA / 18

BERTSO BERRIAK Iruñeko udaltzainei jarriak. JULIO SOTO / 19

ERDIKO KAIERA

MURSEGO: «Ez dut uste jendea nire kontzertuetara modernoarena egitera datorrenik». IKER BARANDIARAN / 20

MUSIKA JOXI UBEDA / 23

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 24

ALEA Eszenako mugak haustea helburu. MYRIAM GARZIA / 25

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 26

IHESI Lurraren barrunbeetan turista... edo esploratzaile / 27

● **OÑATI (GIPUZKOA)** Arrikutz, haitzuloko lehoiaren aztarna. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 28

● **SANTA GRAZI (ZUBEROA)** La Verna, espeleologia denen eskura. JOANES ETXEBARRIA / 30

● **LARRAUN (NAFARROA)** Mendukilo, Aralarren bihotzera sarbidea. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 32

● Ez da erosoena, baina merezi du. UNAI BREA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 38

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 39

TERMOMETROA

CRISTINA URIARTE: «Aurreko legeekin gai izan bagara gure curriculumak garatzeko, oraingoan ere lortuko dugu».

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 40

GORKA LEKAROTZ: «Nafarroan euskara galtzea eta euskara izan denik ere ahaztea segidan etorri dira sarri». MIEL A. ELUSTONDO / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Bogotak nahi du *Basura Cero*, baina utziko ote diote?
PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK

Posible da PSNrik gabeko gobernu alternatiba

EAJ eta EH Bilduren emaitzak bloke abertzalea biziki sendotu dute, eta jadanik joera da hori. Hegemonia lehiatzeaz gain, serio pentsatu beharko dute herrigintzaren ikuspegitik elkarlan sendoagoa jorratzea. Nafarroan, aldiz, emaitza hauek erakutsi dute posible dela PSNrik gabeko gobernu alternatiboa. Gaitza, baina posible. Ez dago kontrajarria, baina erabaki eskubidean sakondu baino, EH Bilduk ezkerreko indarrekiko aliantzan murgildu beharko du datozen urteetan, erresuma zaharrean behingoz UPNren alternatiba eratzeke.

| XABIER LETONA |

AURREIKUSI MODUAN, Europar Batasuneko hauteskundeek ez dute erakarpenik eta euskal herritarren erdiak baino gehiagok (%55 inguruk) ez du hauetan parte hartzen. Hala ere, Hego Euskal Herrian, parte-hartzeak bizpahiru puntu egin du gora 2009ko emaitzekin konparatuta. Horrek esan nahi du, beraz, adi ibili behar dela etorkizuneko hauteskunderi begira egiten diren estrapolazioekin, %20-30eko parte-hartzearen handitzeak goitik behera alda baitezake edozein emaitza.

Hala ere, ezin uka Europako hauteskundeek ere joera oso argiak finkatzen dituztela, oraingoan batez ere honakoak: 2011tik aurrera apurka finkatzen ari den ETaren ondorengo mapa politikoan, EAJk eta EH Bilduk osatzen duten bloke abertzalea bere nagusitasuna azpimarratzen ari da Hego Euskal Herrian, eta PP eta PSOEren gain-behera etengabekoa da. Kasu honetan azpimarragarriena PSOEren emaitza litzatzeke, EAEn eta Nafarroan, batez beste, beren botoen erdia baino gehiago galtzen dute 2009arekiko (%59,18tik %28,28ra). PPk herena galtzen du (%26,8tik %17,6ra). Eta, oro har, hauteskunde hauetan ezin ahaztu txikiagoen emaitzak, batez ere ezkerrekoak, Ezker Anitza (62.000 boto) eta Podemos (72.000 boto) modukoak. Bien artean 135.000 boto lortu dituzte Hego Euskal

Herrian. UPDk ere gora egin du nabarmen, bere botoak bikoiztuz (30.000 boto). Emaitza horiekin, dena den, azpimarragarriena da Podemos sartuko litzatekeela Eusko Legebiltzarrerara eta UPD kanpoan geratu. Hiru alderdi hauei dagokionez, Espainiako joerak mantendu dira, bipartidismo espainiarraren amaiera etor litekeela erakutsiz. Baina, seguruenik, horretarako herritarrek gertuago ikusten dituen hauteskunde batzuen beharra dago, ikusteko alderdi txikiagoen joera horiek azkartzen diren ala ez. 2015eko udal hauteskundeetan ikusi ahal izango da hori Espainian.

EAE: EAJ nagusi, EH Bildu gertu

Orain artekoa Hego Euskal Herriko datuen azterketa orokorra litzateke. Ipar Euskal Herrian UMP da nagusi, bigarrena FN (PS eta Modem gertu dituela) eta abertzaleen artean EAJ, baina kontuan hartu behar da ohikoan nagusi den ezker abertzalea ez dela bozetara aurkeztu. Egungo errealtate politiko-administratiboaren irakurketa zehatzago eginda, EAJ da EAEko alderdi nagusia eta EH Bilduk gertutik jarraitzen du, lau puntu gutxiagorekin (%27,45 / %23,35). Ohiko bloke nagusi

Ohiko bloke nagusien banaketari dagokionez, EAEn EAJ/EH Bildu blokeak (%50,8) bikoiztu egiten du PP-PSErena %23,99

sien banaketari dagokionez, EAJ/EH Bildu blokeak (%50,8) bikoiztu egiten du PP-PSErena %23,99. Lurraldeko kontuak argi daude: Bizkaian EAJren nagusitasuna erabatekoa da,



EH Bildu atera da Hego Euskal Herriko lehen indarra 220.000 botorekin eta EAJ bigarrena 213.000ekin.

eta azken hauteskundeetan bezala, EH Bildu nabarmen finkatzen da bigarren indar moduan. Gipuzkoan EH Bildu da nagusi eta EAJ bigarren indarra; 2012ko autonomikoen joerei eutsiz jeltzaleek bazuten EH Bildura gehiago gerturatzeko esperantza, baina ia zazpi puntura geratu dira. Eta ezustekorik handiena Araban gertatu da, lehenbiziz EH Bildu baita lehen indarra eta bi puntura EAJ.

PSOEren porrota

Hauteskunde hauetan, alabaina, garaipenak baino porrotak nabarmendu behar dira, bereziki PSErena. Patxi Lopezen alderdiak bere historiako emaitzik txarrenak atera ditu eta botoen erdia galdu du (202.000tik 104.000ra). PPren galera ere itzela izan da, herena galdu du EAEn (107.000tik 77.000ra), eta eserlekuetan ere galera sinboliko esanguratsua izan du, Carlos Iturgaitzek ez baitu bere eserlekua berreskuratzea lortu. Egunotan joango gara alderdion zuzendaritzetako azalpenak entzuten, baina dagoeneko buruzagi batzuek egin dituzten adierazpenak ez bide doaz bide onenetik. Idoia Mendiak astelehen goizean egindako adierazpenen arabera, bere alderdiaren akatsa ez

legoke edukietan, formetan baizik, bere ezkerretara dauden alderdiek ez ei dute berrikuntzarik aurkeztu edukietan, baina bai formetan. Ezker Anitza eta Podemosekin erkatuz edukiena egia ez izateaz gain, Mendiak ahaztu nahi du PSOEek krisiaren aurrean Madrilen izan duen jarrera, eta hori herritarrek ez dute ahaztu, ezta bere botoemaileek ere. nola ulertu edo sinetsi estatu osoan boto gehienetarik galdu duen lurraldeko buruzagia izatea alderdia bere porrotek altxako duena? Iturgaitzen azalpena ere alderdi handietako galtzaileek askotan egiten dutena da, beti irabazi: bai onartu zuen PPren galera EAEn, eta berea ere bai, baina oro har, Espainian PP oraindik lehen indarra dela gogorarazi zuen eta horri eman behar zaiola garrantzia.

Nafarroa gori-gori

Hauteskunde hauetan Nafarroan jokoan zera zegoen, ea oposizioko indarrek balizko gobernu bat osatu ahal izango luketen PSN-rik gabe, eta blokeen arteko emaitzak asko gerturatu dira. PP, PSN eta UPDren artean %44 lortu dute eta EH Bildu, Podemos, Ezkerra eta EAJren artean botoen %40,7.

Pirinioetako eskualdeetan ere Fronte Nazionale garaile

Frantziako Estatuan 8 dira hauteskunde barrutiak. Akitania, Languedoc-Roussillon eta Midi-Pyrénées eskualdeek 4. osatzen dute. Herri-tarrek 10 europarlamentari hautatu dituzte, aulkiak honela banatuz: FNk 3 irabazi ditu (bozen %24,71). UMPk 2 (%18,51). PS-PRGk 2 (%15,73). EELVko 1 (%11,48). UDI-MoDemek 1 (%8,60). Front de Gauchek 1 (%8,57). Abstentzioa estatuko antzekoa izan da: %52,51.

Politikari ezagun hauek izanen dira Bruselan: Louis Alliot eskuin muturrekoa, Michele Alliot-Marie eskuindarra, Virgine Rozière sozia-

lista, José Bové ezkerreko ekologista, Rober Rochefort zentrista eta Jean-Luc Melenchon ezkertiarra.

Ipar Euskal Herriko emaitza orokorra ezagutu ezean, hona bera hartzen duen departamenduko (Pirinio Atlantikoak) datu azpimarragarri batzuk: Alliot-Marie izan da bozkatuena, 42.000 boz jaso du, José Bovék berriz 26.000 inguru.

Baiona –Ipar Euskal Herriko hiriburua– hartu dugu tokiko euskal herritarren bozen lagin: UMPko Alliot-Mariek %22 jaso ditu. FNko Alliotek %14,79. PSko Rozièrek %12,86. EELVko Bovék %12,55 eta Rochefort zentristak %11,62.

EH Bai (ezker abertzalea) ez da aurkeztu, ez inoren aldeko boz eskatu ere. EAJko Jean Telletxeak bozen %7,48 jaso du Baionan.

Edonola ere den, FNk eman du Iparraldean ere jauzi izugarri, hala Akitanian nola 8. barrutian. Frantziako Asanblea Nazionalen ordezkariarik ez izatetik Europako Parlamentuan frantziar aulki gehien duen alderdia izatera pasa da. Marine Le Penen Fronte Nazionalak lurrikara politikoa sorrarazi du estatu osoan, Pirinioak hartzen dituzten hiru lurraldeetan barne.

Mikel Asurmendi

Jakina, hemen giltzarri dira aurkeztu ez diren bi indar politikoak, UPNren botoemaileen zati handi bat falta delako bloke batean eta bestean Geroa Baien botoak gehitu beharko lirakeelako. Azken honi dagokionez, zerbait argi geratu bada koalizio horren baitan EAJk duen indarra da (5.400 boto), Espainiako 2011ko azken hauteskunde orokorretan Geroa Baik 42.000 boto lortu baitzituen. Abstentzioa hor dago eta hauteskunde bien emaitzak ezin guztiz konparatu, baina datuak oso esanguratsuak dira.

EH Bilduk bigarren indarra izateko erronkari eutsi dio Nafarroan. Pentsa zitekeen, baina funtsean ikusi behar zen PSNren galera noraino helduko zen. Eta bai, emaitza hauekin esan liteke Roberto Jimenezek gidatutako alderdiak larrutik ordaindu duela berriz ere UPN gobernuan mantentzeko bere politika. Abstentzioa hor da, ados, baina norabidea argia da, bide horretatik PSN oso bigarren mailako alderdia bilatzeko joeran dago. Bestetik, oso posible da Geroa Baien boto zati bat Podemosera joan izana. Edozein kasutan, azpimarragarria da PSN kenduta ezkerreko alderdiek izan duten emaitza: EH Bildu, Podemos eta Ezkerrak 83.000tik gora boto lortu dituzte (%38,9).

Urtebete besterik ez da falta Nafarroako foru eta udal hauteskundeetarako eta lehia gogorra izango da. Giltza, berriz ere seguruenik, PSNren esku izango da. Espainian izan diren emaitzekin eta Kataluniako prozesua aurrez aurre, ezin da baztertu azken boladan bolo-bolo dabilen hipotesia, hau da, PP-PSOE koalizio gobernu Madrilan, eta bistan da horrek eragin handia izango lukeela Nafarroan ere. Historiari begira, oso posible litzateke PSNk berriz ere sostengua ematea UPNri, baina bide horrek PSN nora daraman ere gero eta argiako ikusten da. Eta gainera, lehen kimera bat zena orain ere urruti da baina akaso posible da, hau da, PSNrik gabeko gobernu alternatiba osatzea. Urtebetek asko eman dezake, bai alde batera zein bestera, eta lehia itzela izango da, hori bederen iragarria dago. ■



Boto kopurua Euskal Herrian	
EAJ	220.885
EH Bildu	220.137
PSOE	135.634
PP	131.334
Podemos	72.480
IU-EKI	62.602
UPD	34.760
UMP	21.320
Udaberri Europarra (Equo)	15.107
FN	13.968
PS	12.507
Europe Ecologie	11.966
MoDem	11.163
Abstentzioa:	
Hego Euskal Herrian: %55,06	
Pirinio Atlantikoetan: %53,87	
Beltzez , Hego Euskal Herrian aurkeztu diren alderdiak; gorriz , Ipar Euskal Herrian aurkeztu direnak. EAJ Euskal Herri osoan aurkeztu da.	
Iturriak: Espainiako Barne Ministerioa, Frantziako Barne Ministerioa, Gara.	

DANI BLANCO



Asier Blas



ZIENTZIA
POLITIKOETAKO
IRAKASLEA
EHUN

Demokrazia eskasa Europar Batasunakoa

GEROZ ETA GEHIAGO dira Europar Batasunak inposatzen dizkigun legeak eta erabakiak era ez demokratikoan. Erabakiak estatueta gobernuak hartzen dituzte batzordean eta ministroen kontseiluan, europarrok bozkatu ez ditugun bi erakundeetan. Noski, estatueta bozkatutako gobernuak dira, baina adibidez, gure gobernuak babestu ez duten neurri bat inposa diezagukete beste gobernu batzuk (guk bozkatzeko aukerarik izan ez ditugunak) horrela adostu dutelako gehiengo. Horri Zientzia Politikoetan *accountability* (kontu emate) demokratiko eza deritzogu.

Agertoki horretan, Europako Legebiltzarrak aurrekontuak eta zenbait erabaki eta kargu berretsi behar ditu. Honen aurrean hauteskundeak partaidetza baxua izatea normala da, herritarrek badakite ezer gutxirako balio dutela. Herrialde

batzuetan partaidetza derrigorrezkoa izango ez balitz eta beste batzuetan bestelako hauteskundeak egingo ez balira aldi berean, partaidetza baxuago litzateke. Horregatik, protesta botoak hartu du garrantzia Europar Batasunetik inposatzen diren politika publikoak salatzeko. Ezkerreko alderdi asko elitista bilakatu dira azken hamarkadetan eta ez dute asmatu nola aurre egin krisi neoliberalak sortutako shockari. Azken hau EBk aprobetxatu eta neurri neoliberal gehiago inposatu ditu. Diskurtso alternatibo bakarra nazionalismo populistek eman dute (horietako asko eskuin muturrekoak). Azkar jakin dute arazoa zentratzen, esparru estatala baldin bada azkeneko maila demokratikoa, honek soberania galtzen duen heinean kontrol demokratikoa galtzen ari gara. ■



Esquerra irabazle

EZKERRAK egin du gora Erkideagoan eta ezkerak egin du gora Nafarroan. Espainiako Estatuan ere ezkerak gora egin du (IU). Eta Katalunian berriz, Esquerrak irabazi du. Kataluniak Esquerrari eskerak Europako bidean Estatu izateko bidean beste urrats bat gehiago eman du.

Kataluniako herriaren nahiaren beste erakustaldi bat, ikusi nahi duenarentzat. Azaroaren 9an egingo duten kontsultarako erakustaldia izan daiteke, baina egun horretarako mobilizazio handiagoa behar du. Mobilizazio hori Kataluniatik bertatik ez ezik, Europatik ere jaso behar du. Kataluniako boto emaleak horren jakitun direla erakutsi dute, %8a gehiago bozka ematera hurbilduz.

Espanian, bloke konstituzionalistak egurra jaso du, neurri batean zatiketari

esker (Podemos eta UPD gogor sartu dira eszenatokian) eta honek, guri ere nahi badugu ahal dugula erakusten digu. Hau da, gure esku dagoela. Hortik ere zer ikasia: zatiketak kalte egiten digu. Katalunia horretan ere bide eta adibide.

Nafarroan eta EAEn abertzaleok izandako emaitzak, ibilbidea erakutsi digute. Katalanek garbi esan dute, Estatu propioa nahi dute. Guk erabakitze eskubideaz lortu edo ez (hartu edo ez), beste erabaki batzuk hartu behar ditugu: EAJk Europar "Nazio gehiago..." defendatuko duela dio. EH Bildutik aldez, Estatu propioa aldarrikatuko omen du Europako parlamentuan. Beste behin ere zatiketaren kalteak ikusi ditugu, oraingoan inoren lepotik. Ea ba, behingoz, ados jartzen garen. Euskaldunoi ere erabakiren bat hartzeko ordua iritsi zaigu. ■



JUDIT FERNANDEZ

Ainhoa Larrañaga



HUHEZIKO
ETA LANKIKO
KIDEA



Ultraeskuinaren itzala Europako hemiziklo nagusian

Alderdi ultraeskuindar eta populistak indar handiz sartu dira euroganberan.
Frantzian Fronte Nazionalak panorama politikoa astindu du,
eta Espainian bipartidismoak galera itzela izan du.

| URKO APAOLAZA AVILA |

HAMAR HERRITARRETIK sei etxean geratu da Europako Legebiltzarrerako hauteskunde hauetan. 1979an parte hartzea %62koa izan zen, 35 urte geroago %43,1ekoa. Nahi duena kontsolatu daiteke esanez duela bost urte baino hamarren bat gehiago izan dela parte-hartzea, lehen aldiz igoera sumatu dela... Baina datu horiek lotsagarriak dira, areago kontuan edukita zenbait estatutan Europako bozen data aprobe-txatu dutela herritarrei gertukoago zaizkien udal hauteskundeak egiteko.

Marketin guztia erabilita ere ez dira kapaz izan hautesleria mobilizatzeko. Kanpainen barrena mila bider errepikatu digute Europako Parlamentuak eskumen gehiago izango dituela hemendik aurrera, Lisboako Itunak tresna gehiago eman omen dizkiola hemizikloari. Eta promoziorako ikur gisa jarri dute Europar Batzordearen presidentearen aukeraketa, lehen aldiz legebiltzarraren esku legokeena.

Emaitzak jakin eta berehala Jean-Claude Junker hautagai popularrak presidente kargua aldarrikatu zuen txio batean. Martin Schulz sozialdemokrata berriz, bestelako aliantzak egiteko prest agertu da presidentetza eskuratzeko. Egoera nahasia ikusita, bada iradoki duenik hautagai izan ez den norbait jarri beharko litzatekeela presidente. Baina hori ulergaitza litzateke legitimitate demokratikoaren ikuspuntutik.

Arku parlamentarioaren koloreak begiratu-ta, lehen kolpean antzeman liteke eskuin tradizionalaren atzerakada –Europako Alderdi Popularrak (EPP) hamarnaka eserleku galdu ditu–; baina bisorea ondo enfokaturaz gero, Europak eskuinera nabarmen egin duela kon-turatuko gara, ultraeskuindarrek 100 eserleku baino gehiago lortu dituztelako.

Frantzian Le Pen-en alderdia izan da garaile (%26), Ingalaterran UKIP (%29) eta Danimarkan DF (%23). Austrian FPÖk



Marine Le Pen, Front Nazionaleko buruzagia. Alderdi horrek Frantzian izan duen arrakasta, Europa osoan gertatuko denaren iragarpentzat jo dute askok.

botoen ia %20 lortu du eta Grezian neonaziek %10 baino gehiago. Eskuin muturreko alderdi populista gehiago ere izango dira Bruselan: Italiako Lega Nord (%6), Alemaniarentzako Alternatiba (%7), Egiazko Finlandiarrak (%13)... Taldea osatzeko gutxienez zazpi estatutako 25 eserleku behar dituzte. Ikusi behar, nahiko multzo heterogeneoa osatzen baitute.

Alderdi antieuropear eta xenofobek Bruselan zuzenean izan dezaketen indarretik harago, kezkagarriagoa gerta liteke talde handiek bultzatutako politketan izango duten eragina,

immigrazioaren inguruko diskurtso arrazistan esaterako.

Fronte Nazionalaren lurrikara Frantzian

Maiatzaren 25ean hautestontziak itxi eta berehala Frantzian argitaraturiko zundaketek, Le Pen-en Front National alderdiari ematen zioten garaipena. Ez zen kontaketa ofizialaren beharrik izan alarma gorria pizteko. Hexagonoko ordezkari politiko eta pentsalarien hitzek egoeraren larritasuna adierazten zuten.

Jean Marie Le Pen FNren fundatzaileak jo zuen erreakzio-kate horren lehen ukabilkada: “Desegin egin behar da Frantziako Asanblea Nazionalea”. Ségolène Royal Ekologia ministro sozialista: “Gainerako mundu osoarentzat astindua izan da hau”. José Bové aktibista: “Fronte Nazionalaren garaipena erabateko iruzurra izan da”. Edgar Morin soziologoa: “Besteen ezintasunak, itsutasunak, utzikeria, ekarri dute Front Nationalen garaipena. Horrela jarraitzekotan, hau hasiera besterik ez da”. Eta azkenik, Valls lehen ministroa: “Hau ez da alarma, hau lurrikara da”.

FNk botoen %26 eta 24 eserleku lortu ditu. Garaipen historiko hori Europan eman den protesta botoaren erakusle nagusienetakoa da.

IULEN MADARIAGA

«Armak edonori entregatu ahal zaizkio, salbu Madril eta Parisi»

“ETAko sortzaileetakoa izan zen 1959an. Haietatik hiru bakarrik geratzen dira bizirik. Klandestinitatea, tortura, espetxea, heriotza, arazoak ETArekin... 82 urte ditu eta hil baino lehenago idatzi behar zuen liburu hau: *Egiari zor*. Emango du zeresanik.

| XABIER LETONA |

Argazkiak: Dani Blanco

Liburua hil aurretik idatzi behar zenuela diozu. Gauza asko kontatzen dituzu, batez ere ETAr buruzkoak. Batzuei ez zaie asko gustatuko.

Seguraski ez. Bi-hiru hilabete ibili nintzen nahiko gaizki, lan hau egin behar nuen ala ez pentsatzen, eta baietz erabaki nuen. Honakoak ziren nire galderak: nik ikusitako guztia kontatu behar nuen, edozelakoak izanda ere, bai ala ez? Bai. Eta hurrengo galdera: norentzako idazten duzu? Euskal Herriarentzat eta bereziki gazteentzat. Beraz, euskal herritarrak badu eskubidea jakiteko zer gertatu den, gertatutakoa latza, ederra edo tristea izan. Liburuan gertaera goxoak zein zakarrak agertzen dira. Azken hauek ez ditut nik egin; nik idatzi, azaleratu besterik ez ditut egiten.

Oraindik ETA bizirik da. Hor esandakoek eragin ahal diezaiokete norbaiti?

Ez dut uste. ETA eta ETAko militanteak bereizi behar dira, eta arreta ETAn jarri. ETAn era guztietako militanteak izan dira, oso era desberdinetakoak, eta liburua irakurtzen duenak ikusiko du gehienetan ondo hitz egiten dudala etakideei buruz. Baina kasu batzuetan ez da hala, eta kontatu egin dut. Gero gure herriak epaituko du. Espainiarrek erran ohi dute “*que cada palo aguante su vela*”.

ETA izena 1959an Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegi*k sortu zuela diozu, baina sorrera urtea, berez, 1952an Ekin sortu zenekoa dela, 1959ko hori izen aldaketa bat besterik ez zela

izan. Pentsa zenezaketen halako ibilbiderik izango zuela?

Ez, inondik inora. 1952an Deustuko Unibertsitatean, Joxe Manu Agirre, Gurutze Ansola eta hirurok Aita Urrutia genuen irakasle, eta berak bildu gintuen. Horrela hasi nintzen Euskal Herriarekiko nire kezkak haiekin partekatzen, gero jende gehiago hurbildu zitzaigun eta Ekin sortu genuen. Geroxeago, EAJ-rekin izandako hausturaren ondoren, honako hauek ETA sortu genuen 1959an: Jose Maria Benito del Valle, Joxe Manu Agirre, Mikel Barandiaran, *Txillardegi*, Rafael Albisu, Iñaki Larramendi eta nik.

Benetan sinesten zenuten Euskal Herriarentzat independentzia lor zenezaketela?

Gure herriak borroka aurrera eramanez gero

NORTASUN AGIRIA

Iulen Madariaga. 1932an jaio zen Bilbon. Madariagatarren aldetik, Bilboko familia abertzale ospetsukoa. Gerra umea, familiarekin Txilera erbesteratua. 1959an ETA sortu zuen taldekoka eta erakunde horretako lehen buruzagia. Espetxea, atzerria, tortura... hamarkadetako kontua bere bizitzan. Bi emazte eta hamaika seme-alaba izan ditu eta horietako biren heriotza ere ikusi du. Aralar alderdiaren sortzaileetakoa izan zen. 2012an iktus batek jo zuen eta, makulu beharrean bada ere, oro har, sasoz ageri da. *Egiari zor* liburua (Erein) idatzi du.




eta ekintza-errepresio-ekintza kiribil hori eten-gabe areagotuz gero, posible ikusten genuen. Gure leitmotiv nagusia zera zen: “Zerbait egin behar dugu” euskal nortasuna berreskuratzeko, izaera... espainiarkeria zanpatzen ari zen hura guztia. Baina horretarako independentzia berreskuratu behar genuen. Klase borrokarena geroxeago etorri zen, nazio ikuspegiaren eskutik; lehenik herria askatu behar genuen eta gero askatasun sozialaren alde egin.

ETAren lehen buruzagia izan zinen.

Beste kide bat hautatu genuen lehenik “buruzagi” gisa, lagun eta adiskide preziatua, baina hark erran zuen bera ez zela gai horretarako. Balizko hautagaiez asko aritu ondoren, niri proposatu zidaten, sei hilabeterako. Hautaketa egiteko kontuan hartzen genuen bakoitzaren egoera, familia... eta, ezkondua eta hiru seme-alaba banituen ere, norbaitek izan behar zuela pentsatu eta baietz esan nuen. Hegoaldean ibili nintzen atzera aurrera, taldeak eratu eta antolatzen, oso garai bizia izan zen; segurtasun neurri gisa, adibidez, sekula ez nituen egiten bi gau jarraian leku berean.

Sarekaden ondorioz, barne kontraesanak eta zuen antolaketa medio, liburuan sarritan aipatzen duzu oso larri zenbiltzatela, baina ETA behin eta berriro berpizten zen.

Egiari zor argitaratu berri du Madariagak, ETAren baitan egin duen ibilbidean ikusitakoak kontatuz.



Nazio eta sozial arazoaren kontraesana beti zegoen hor. Krutwigek [Federico] bi estaiko misil batekin konparatzen zuen kontraesana, beheko aldea independentzia zen eta goikoa klase borroka. Lehen estaiak ez badu behar bezala lan egiten, ez zaio indarra pasatzen bigarrenari eta misilak ezingo luke altxatzen ahal. Batzuetan aitzinatzen zen klase borroka, baina azkenean independentzia beti berko-katzen zen lehen mailan.

Liburuan aipatzen duzu frankismotik aurrera, apurka, ETA herriaren sostengua galtzen doala. Non ikusten zenituen horren zantzuak?

Badirudi galdera sinplea dela eta erantzun sinplea duela, baina ez du. Independentzia lortzeko herriaren eskuetan jartzen genuen baliabide bat zen borroka armatua, tresna bat. Horrez gain, finkatua genuen gure barne funtzionamendua eta gure inguruarekin eragiteko modua demokratikoa izan behar zuela. Liburuan eranskin gisa jartzen ditut 80ko hamarkadaren hasieran eta erdialdean ETako zuzendaritzari igorritako bi gutun kritikoak, ni erakundeko militante soila nintze-nean. Seguruena ohartu gabe, baina nire ustez ETako zuzendaritza herriarengandik urruntzen ari zen eta hori ez zen ongi. Iparraldeko gure anai-arreba abertzaleekin nola jokatzeko ari ginen ere [ETA eta



IKren arteko arazoez ari da] ez nuen egoki ikusten.

Ni ETA kritikatzan hasi nintzenean, lehenik beti zen hitzez eta gure barnean. Baina kasurik ez. Egun batez, 1986an, Txomin [Iturbe] hurbildu zitzaidan eta eskatu zidan bilatzeko etxe bat, zuzendaritzako hiru kide etorriko zirela nirekin hitz egitera. Juanjo Aranburu eta *Zekorra* [Josu Urrutikoetxea] etorri ziren harekin. Bakoitzak bota zuen berea, eta begirunez entzun genion elkarri, baina une batez, atzerri politikaz hitz egiten ari nintzela, erran nuen ezin ginela fio Sobiet Batasuna eta Txina moduko inperioekin. Hori entzutean, *Zekorrak* kolpez eta zakar moztu zidan, erabat asaldaturta, eta horrelakorik ezin nuela erran bota zidan. Beste biak ere harrituta geratu ziren eta erran zioten ezin zidala hitza horrela kendu eta isiltzeko. Egun osoa pasatu genuen hitz egiten eta hurrengoan ere elkartuko ginela esan zidaten. Gerora ere birritan izan nintzen zuzendaritzako ordezkariekin, behin Txominekin eta hurrengoan *Zekorra*-rekin.

Zuzendaritza herriarengandik gero eta urrutia-go zegoela diozu. Zertan sumatzen zenuen?

Hainbat kontutan. Adibidez, manifestazio edo ekimen garrantzitsuak ziren uneetan, ETAk bezperaz atentaturen bat egin eta ekimen horiek zapuzten zituen. Geroago, 90eko hamarkadan, PPko hautetsien aurkako atentatuak hasi ziren, [Gregorio] Ordoñezen aurkakoa, [Miguel Angel] Blancorena... Bazirudien ETAn edo ETako zuzendaritzan bazela satorren bat herriak aurrera ateratzen zituen ekimen onak zapuzteko. Nik pentsatu nuen halakorik, eta *Txillardegik* ere bai, eta gainera idatzi egin zuen hortaz. Halakoak gertatzen zirenean, ondorengo hauteskundeetan alderdi abertzaleek behera egiten zuten beti eta

“Seguruenik ohartu gabe, baina nire ustez ETako zuzendaritza herriarengandik urruntzen ari zen eta hori ez zen ongi”. Argazkian, Zabaldegia bere etxearen aurrean ageri da.

etsaiaren alderdiek, bereziki PPk, gora. Zerbait gaizki egiten ari ginen.

Nik idatziz egin nion nire kritika erakundeari, liburuan eranskin gisa agertzen dira, baina ez zidaten erantzuten. Erantzun bakarra 90eko hamarkadaren hasieran heldu zen. *Txillardegik* etorri zitzaidan esanez gutun bat eman ziotela niretzat. Gutun orokor bat zen, gaizki nenbilela esanez, beste etakideak oso gaizki hartu zituztela nik egindako hainbat gauza eta halakoak, baina erantzun zehatzik gabe.

80ko hamarkada oso gogorra izan zen zuretzat, bai errepresioagatik eta baita ere ETaren baitan izan zenituen arazoengatik.

Madril eta Pariso etsaiak oso indartsuak dira, ETA baino askoz gehiago, eta haien kolpeak oso gogorak dira, baina askoz errazago onartzen dira. Presondegira zoaz, edo atzerriara, Belgikara, Mexikora... eta horren eraginez gu ahultzen gara.

1988an berriz espetxeratua izan zinen, Pariseko Fresnes espetxean, han zure bizitzako unerik gogorrenetakoa bizitzea egokitu zitzaizun. Iraia 19 hilabeteko alabaren heriotza bizi izan zenuen eta beste etakide batzuekin zenituen harremanak ere oso txarrak ziren. Zure buruaz beste egitea ere pentsatu zenuen.


Bai, garai latza izan zen, batez ere *Zekorra*-rekin nuen harreman txarragatik. Hasieran egon nintzen ziegan *Txikiardixekin* [Juan Lorenzo Lasa] eta *Harakina* deitzen genuen Goizuetako beste batekin. *Txikiardi* presondegiz aldatu zuten eta haren ordezkari *Zekorra* ekarri zuten ziegara. Guk ez genuen harreman onik eta *Harakina* berehala konturatu zen horretaz, nahiz eta guk ez genuen ziegan horretaz hitz egin. *Harakina* *Zekorra*-rekin bat egin zuen berehala eta bizitza

oso zail egiten zidaten. Adibidez, eguneroko lanak banatu egiten ziren beti, janaria egitea, ziega edo komuna garbitzea eta gisakoak. Hala-ko batean, ni konturatu nintzen lan batzuk –beste batzuk baino zikinagoak, adibidez komuna garbitzea– nik besteek baino gehiagotan egin behar izaten nituela. Eta esan nien hori ez zela egokia, eta *Zekorrak* arrapostu zidan han erabakiak demokratikoki hartzen zirela. Jakina, beti bi baten aurka, beti egiten zen haiek nahi zutena. Egutero-egutero giro txar horretan, lehertzeaz nengoen; eta gainera giro horretan gure ttipia galdu...

Zekorrak bazuen bere taldetxoa eta horietako batzuek leihoz leiho esaten zuten ozen, nik ondo entzuteko moduan, “*oye, al hijo puta ese cuando le vamos a limpiar el forro?*” (aizue, putakume hori noiz garbituko dugu?).” Patioan ere irainka aritzen ziren, gazteleraz, Iparraldeko anaiek ohar ez zitezen. Beste behin, euria zen eta barneko gimnasia jo genuen, ni jogginga egiten hasi nintzen eta Zekorra ere bai, baina bera kontrako norabidean, eta elkar gurutzatzean bortizki jo ninduen, nehor ez konturatzeko gisan. Hurrengo itzulian ere saiatu zen, baina kolpea saihestu nuen eta hirugarrengoa gainera egin nion salto. Nik korrika jarraitu nuen eta bera belauniko gelditu zen, eta berriz bere aurretik pasatzean zera erran zidan: “Makurtuko haiz bai, edo lehertu beharko duk”.

Oso gaizki nengoen eta nire buruaz beste nola egin pentsatzen hasi nintzen. Eta horretan ari nintzela, egun batez, zaindaria etorri eta ziegaz aldatzen nindutela erran zidan. Infernutik purgatoriora pasatzea izan zen. Eta hiru-lau hilabete ziegan bakarrik egon ondoren, beste sail batera eramanez ninduten. Han ziren, besteak beste, *Santi Potros* [Santi Arrospide] eta *Azkoiti* [Jose Luis Arrieta], jende ona eta garbia, eta enetako purgatoriotik zerura pasatzea izan zen. Egoera hori guztia salatuz idatzi nion ETako zuzendaritzari, baina ez nuen sekula erantzunik jaso.

“Zekorrak bazuen bere taldetxoa Fresnesen eta horietako batzuek leihotik esaten zuten ozen, nik ondo entzuteko moduan, ‘oye, al hijo puta ese cuando le vamos a limpiar el forro?’”.



Liburuan diozu ETak diruz laguntzen zituela presoak, eta zu zinela Fresnesen haren dirurik jasotzen ez zenuen bakarra.

Bai, eta erakundeari galdegin nion hortaz eta Zekorra-ri ere bai, eta honek esan zidan erakundea ikerketa bat egiten ari zela ea azken atxiloketako kontuekin [1988koa] nik polizia-rekin traturen bat ba ote nuen aztertzeke. Bada, jada espetxeko zero hartan nintzela, *Santi Potros* etorri zitzaidan behin esanez dirulaguntza jasoko nuela, inkesta egina zela, ez zela ezer txarrik atera eta afera hura guztiz konponduta zegoela. “Konponduta bai –erantzun nion nik–, eta nire buruaz beste egin izan banu, nola konpontzen da hori?”.

60ko hamarkadan hasi eta 2006an espetxeratu zintuzten azkenekoz. Tartean, klandestinitatea, tortura, heriotzak, espetxea, bizitza normala... Eta bi emazte eta hamaika seme-alaba ere bai. Nola eramaten da hori guztia batera?

Ez dakit. Behin baino gehiagotan galdetu diot horixe bera nire buruari eta ez dakit. Zaila da erantzutea. Askotan pentsatu dut: “Sobera izan da dena, baina bizirik nago”.

ETAren bukaera duinik ez dela gertatu diozu. Oraindik posible al da?

**ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT**

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

**BIZKAIA
BIZIA**

Alaba txikiaren heriotza

Fresneseko espetxea, 1988ko irailaren 23. "Iraia alaba gazteena-
ren heriotzaren berria iritsi zitzaidan burdin barra artetik. Hemere-
tzi hilabete zituen eta etxeko igerilekuan itorik aurkitu zuten". Ez
zioten hiletetan egoten utzi, ezta familiarekin ere. Alabarekin bai:
"Iraiaren hilotzaren aurrean egon nintzen luzaz, halako burbuila
bat osatuz gure inguruan. Sakonki hunkituta nintzen, eta gure
bazerretan iragaiten ari zen guztiak ez zuen izenik". (Egiari zor).



Baldintza batzuk emanez gero bai. Armen
gaia, esaterako: armak edonori entregatu ahal
zaizkio, adibidez nazioarteko batzorde bati,
salbu eta Madril edo Parisi. Duintasun kontua
da. Presoei dagokienez, bake prozesuak izan
diren gerla eta gatazka guztietan atera dira
presoak eta hemen ere, pazientzia beharko
bada ere, aterako dira.

Liburuan askotan aipatzen da sufrimendua,
batez ere, errepresioaren ondorioz jasandako
sufrimendua. Baina ETak ere sufrimendu itzela
eragin du. Bake prozesu batean egonda, zuk
zer esango zenieke ETak hildakoen familiei?

Biziki zaila egiten zait galdera hori, ezin bai-
naiz gezurretan ibili. Gerra bat, gatazka bat
lehertu zen, eta horren ondorioz jende asko
sufritu du. Ez dakit zein den aterabidea,
baina nik askotan esan dut: "Zein sartu da
zeinen etxean? Espainiarrak gurean edo gu
haienean?". Eta gauza bera frantsesekin.

Ezker abertzaleari askok esaten diote autokriti-
ka egin behar duela. Hark esaten du egin
duela, egin dezatela besteek ere. Gehiago egin
behar du? Noraino?

Gure etxean sartu diren etsaiak egin behar du
autokritika lehenik, eta gero guk ere egingo
dugu gurea. Bi autokritika egin behar dira,
bata etsaiaren aurrean, eta bestea euskal
herriarren aurrean.

Eranskinetan agertzen duzun ETaren gutunean
pertsonekin akusazioa egiten dizu ETak.

Bai, behin baino gehiagotan utzi dute eror-
tzen hori, baina behin ere ez didate azaldu
zertan oinarritzen ziren. Behin batek galde-
tu zidan ea lehendakaria izango ote nintza-
tekeen. "Herriak hautatuz gero, prest nen-
goke", erantzun nion nik, besterik gabe.
Egokitu zaidana egin dut nik, buruzagi hau-
tatu ninduten hartan bezala edo bestelakoak
beste hainbatetan. Beti eraman izan ditut
batera pentsatzen nuena eta egiten nuena,
ondorio guztiekin. Inoiz ez dut izan arazo-
rik barkamena eskatzeko, zerbaitetan arra-
zoirik ez banuen. Ni lanean aritu naizen
pertsonekin, klandestinitatean edo bestela,
eta ondo ezagutu nautenekin, sekula santan
ez dut arazorik izan eta ondo moldatu izan
gara.

Inoiz pentsatu al duzu hobe izango zela ETA
sortu izan ez bazenute?

[Ixilunea] Ez. Baina kontziente nintzen guk
sortutako ETA hori pitokeriatan ari zela
azken hamarkadatan.

Zer esango zenioke gaur egungo
ETari?

Badakit zaila dela hori neurtzea,
baina gure herriaren borondatea
bete dezala. ■



Txipiroiak plantxan

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Gaixotasun degeneratiboari ez diote batere laguntzen murrizketek

Maite Ekai Larrion naiz, donostiarra, 51 urte ditut eta 14 urterekin giharretako distrofia deituriko gaixotasun degeneratiboa diagnostikatu zidaten. Orain hiruzpalau urte, baina, beste diagnostiko bat egin ziguten: gure osasun laguntzen okertzea.



GIHARRETAKO DISTROFIAK hanka eta besoe-tan eragiten dit, eta baita arnasa aparatuan ere. 14 urterekin antzeman zizkidaten lehen sintomak, eta 22 nituela, eroriko bat tarteko, gurpildun aulkian bukatu nuen. Orduz geroztik nire muskuluak indargabetzen doaz pixkanaka. Gaur aulkitik ohera mugitzeko beharrezkoa dut garabi elektriko berezi bat, eta lotarako, arnasten laguntzeko aparatu bat. Gaixotasuna ez da sekula egonkortzen gainera, eta aurrera doa; orain astebete egin neza-keen zer bait, agian gaur jada ezingo dut egin, eta giharrek mugitu ezean azkarrago egiten du aurrera egoerak. Bestalde, gaixotasun maila geroz eta altuagoa izan, orduan eta zailagoa da mugitzea, eta gorpil ero batean sartzen zara.

Hogeita lau orduz pertsona bat behar dut nire alboan, dependentzia altua baitut, eta eguneroko edozer gauza egiteko laguntza behar dut. Ez hori bakarrik, aldaketa asko egin behar izan ditut nire bizitzan, gaixotasunaren garapen mailaren arabera: gurpildun aulkiak erosi, ohera mugitzeko garabia, bizi naizen eraikinean ere aldaketak egin behar izan dira nire baldintzetara egokitzeko... Eta horrek guztiak oinarri ekonomiko sendoa eskatzen du, baina gero eta zailagoa da, murrizketak medio. Gurpildun aulki elektrikoaren kasuan adibidez, lehen Osakidetza-aren eta Aldundiaren artean emandako laguntza-ekin berdinduta geratuko zen 12.000 euroko gastua; eta duela hiru bat urte erdia ordaintzeko adina eman zidaten. Horri gehitu behar zaizkio, jakina, mantenua, konponketak eta

abar. Horrela etxean dauzkadan hamaika aparatu, eta ez ditut gutizia moduan.

Baina Espainiako Estatuak Dependentsia-ren Legearekin egindako murrizketak dira ezagunenak. Zapatero presidente zen legeal-dian jarri zuten martxan, eta pixkanaka aplikatzeko asmoa zeukaten. Zaintzaileari betetzen zuen lana onartzen eta ordaintzen zitzaion, eta gizarte segurantzaren sartzen zen. Dependentsia hiru gradutan banatuta eta lehenengo bi gradurik altuenei legea aplikatzen hasia zitzailela sartu zen gobernuan PP, eta errotik moztu zuen laguntza. Beraz, kendu zizkiguten bai diru-laguntzak, bai zaintzaileak gizarte segurantzaren alta emanda ego-tea ere. Hala, askorentzat pentsaezina da per-sona bat kontratatzea, eta familiaren babesean nola edo hala egiten du aurrera; baina dauzkagun beharrekin oso zaila da.

Eta Gipuzkoan ez gabilta horren gaizki, Aldundia ari baita hainbat plangintza bideratzen. Bizi independentea ekimenaren bidez esaterako, eta gure etxeetan bizi ahal izateko laguntzak ematen dizkigute. Nik zortea dut, gainera, 40 urtera arte lan egin ahal izan bai-nuen eta pentsio txukun xamarra daukat. Horrek, baina, ez nau libratzen beste hainbat oztopotatik. Botiken berrordainketa ere hor dago, eta gu bezalako gaixoengan eragiten du. Gutxi batzuentzat suspertze ekonomikoa dena beste batzuentzat ia aurre egin ezinezko gastu bihurtu da. ■





**June
Fernández**



KAZETARIA

Erreakzioak

KONTZERTU BATEAN nengoen. Eta aldamenen neukan mutila gehiegi hurbiltzen ari zitzaidala nabaritu nuen. Bat-batean, Bomba Estereoko abeslariak *“qué bonito es bailar apretao”* abesten zuelako aitzakian edo, are gehiago hurbildu zen eta, sast!, bere eskua soinekoaren azpian sentitu nuen. Zein izan zen nire erantzuna? Harritu eta sumindu, baina tipoari ezer esan gabe, nire lagun bati lekuz aldatzea eskatu nion.

Aurreko astean autodefentsa feminista tailer batean parte hartu nuen, duela bizpahiru urte ere beste bat egin nuen. Argi daukat inork ez duela nire gorputza ukitzeko eskubiderik, eta egiten badu, eran-

hori isildu eta taxira igotzen gara. Bat-batean, gure aurrean masturbatzen ari dela ikusten dugu eta gure intuizioari jarraitu ez izanaz damutzen gara. Halako bizipenak partekatzen ditugu autodefentsa ikastaroetan eta ondorioa hori izaten da: gehienetan bagara arriskuak eta erasoak usaintzeko gai, arazoa da “seguru asko oker nago” pentsatzen dugula. Tailerrean neska askok esan zuten: “Berdin dit taxi-lariak zoro nagoela pentsatzen badu. Edozerk susmo txarra ematen badit, ez naiz taxira igoko, edo gero kotxea geldidetzala aginduko diot”.

Ikastaro hauetan azaleratu ohi da erasobaten aurrean erantzun ordez geldidetzatzen, geratzen garenean lotsa edota errua sentitzen ditugula. Orain dela urte batzuk, Bartzelonako Ranbletan nenbillela, tipo bat nire albotik pasa eta ipurdia ukitu zidan. Erreakzionatzea kostatu zitzaidan eta dagoeneko urrun zegoenean “gilipollas” bat oihukatu baino ez nuen egin. Indargabe eta tuntun sentitu nintzen. Baina atzoko kontzertuan are eta tuntunago eta koldarrago sentitu nintzen. Atsekabetu nintzen, urte hauetan ikasitakoa praktikara eramateko gai izan ez nintzelako. Geroago nire buruarekin gogorregi jokatu nuela konturatu naiz. Bilbon zein Managuan ia egunero kaleko jazarpen sexistari aurre egiten diot, eta gero eta maizago erantzuten dut, gutxienez begiradarekin deserosotasuna eta amorrua adierazten dizkiet. Askotan ez naiz indarrekin sentitzen, baina beste askotan bai. Ulergarria da beldurra sentitzea, jakin badakigu emakumeoi ezarritako rol pasibo horrekin apurtzeak ondorioak dakartzala. Izan ere, bortxaketaren mamuarekin hazi gara.

Horregatik, Euskal Herriko Koordinadora Feministaren “Ez dut ausart sentitu nahi, libre sentitu nahi dut!” leloa oso gus-tukoa dut. Emakume izateak, feminista izateak, egunero heroia izatea baitakar. Eta ez dut heroia izan nahi, kalean eta gauean lasai ibili ahal den hiritar askea baizik. ■

Kaletik gizon bat jarraika dugula edota autobusean bere zakila gure ipurdiaren kontra hurbiltzen ari dela sentitzen dugunean, askotan gure buruari galdetzen diogu gure paranoia ote den. Emakumeoi, feministoi batik bat, etengabe leporatzen digute esajeratuak eta histerikoak izatea

tzuteko eskubidea daukadala, eraso baita. Eta erantzutea oso garrantzitsua dela, etsipenik ez sentitzeko eta erasotzaileen inpunitatea ez sendotzeko. Hala jotzen dute, emakumeoi egotzitako rol pasiboari men egingo diogula eta ezine-gona eta amorrua irentsiko ditugula uste dutelako.

Gure senari jaramon egitea autodefentsako ikasgai nagusietako bat da. Kaletik gizon bat jarraika dugula edota autobusean bere zakila gure ipurdiaren kontra hurbiltzen ari dela sentitzen dugunean, askotan gure buruari galdetzen diogu gure paranoia ote den. Emakumeoi, feministoi batik bat, etengabe leporatzen digute esajeratuak eta histerikoak izatea. Eta azkenean guk geuk ere emakume histerikoaren mitoa sinesten dugu. Kalean taxi bat gelditzen dugu, gizonaren begirada lizuna iruditzen zaigu, baina ezinegon





Fermin Erbiti Zabalza

KAZETARIA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Javier Ciga: euskal baserritarrak artearen historian sartu zituen artista

DUELA EHUN URTE, iruindar gazte batek munduko arte erakusketa ospetsuenean parte-hartzea lortu zuen: Parisko Grand Salonen, hain zuzen. Javier Ciga zen gazte hura, eta *Elizondoko Merkatua* saritutako obra, lehiaketan *Paysans Basques* izenaz aurkeztua.

Koadro hori, eta Parisko egonaldian eginiko beste hogeitik gora, ikusgai daude Iruñeko Kondestablearen jauregian, Ciga Fundazioak eta Udalak antolatutako erakusketan. Inpresionismo kutsua darien Senako paisaiez gain, artistak sekula ahortzi ez zituen Euskal Herriko jende eta parajeak ikus ditzakegu... eta Eulalia emaztearen erretratu ederra, ondorengoia izanagatik alaba Gurutzek ekarrarazia: “Ama ekartzen ez badute, alaba ere ez doa inaugurazio ekitaldira”.

Ciga Nicolas Urdampilleta *amerikanoari* esker joana zen Parisera. 1909an ezagutu zuten elkar, iruinsenak Sanferminetako kartel lehiaketa irabazi zuelarik. Entzierroaren irudi ederra ikus-tean, haren babesle bihurtzea erabaki zuen.

Munduko lehen gerra piztean, ordea, Cigak etxera bueltatu behar izan zuen. A ze aldaketa artista baten-dako!: utzi munduko artearen hiriburua harresiz inguraturiko Iruñera itzultzeko. Irakurtzekoak dira, eta

barregarriak, garaiko kazetari batzuen esanak Cigaren etorrera iragarritik. *El Pensamiento Navarro*rena lekuko: “Egun batean bere herrira etorri zen, Euskal Herriaren ama den Nafarroara, eta orduan argi ikusi zuen askoz erakargarriagoa zitzaiola bohemia baino”.

Ez zen hura pintoreak markatu zuen gerra bakarra, Espainiakoak zauri larriagoa utzi baitzion. PNVko kidea, Ciga Iruñeko zinegotzia izana zen hogeiko hamarkadan, bitan. (Udaleko ordezkariak ahortzi egin zuten datua gaztelania hutsezko hitzalditxoetan). Kontua da 1937an atxilotu, torturatu eta ondasun guztiak kendu zizkiotela. Kartzelatik atera, eta adiskide zuen Jose Arruek bezala egin zezakeen: “Bi urtez kartzelan eta orain kalera, goian zerua eta behean lurra. Dena desagertu da, nire obra barne. Pikutara artea, kritikoak eta erakusketak”. Cigak, ordea, aitzina egin zuen, agian beste auke-

rarik ez zuelako. Geroztik, maisuen maisu eta erretratu-egile ospetsu bihurturik bizi izan zen, 1960an zendu zen arte. Iruñetik atera gabe, baina Parisko oroitzapenak gogoan, batez ere duela 100 urtekoa: biziki maite zituen Baztango baserri-ritar xume haiek, artearen historian sartuko zirela jakin zuenekoak. ■

Munduko lehen gerra piztean, ordea, Cigak etxera bueltatu behar izan zuen. A ze aldaketa artista batendako!



DANI BLANCO



Edu
Zelaia



IDAZLEA

Maitasun giltzarrapoak

SEKULA EZ DUT SOBERA maite izan espresio ezagun hori: “Hobe irudi bat mila hitz baino”. Oraingoan, baina, amore eman beharko dut, nonbait. Izan ere, hotzikara eragin dit Dublingo *Ha’penny Bridge* gurutzatzean bertan ikusitako eszena groteskoak. Jakin dudanez, 300 kilo metal baino gehiago kendu zituen Dublingo Udalak iaz zubi horretatik; hala ere, katez jantzi dute berriz maiteminararen gaitza pairatzen dutenek, giltzarrapoz. *Love lock*ak ez omen dira nerabeen kontu hutsa bakarrik.

Groteskoa iruditzen zait, bai, Europa eta munduan barrena azken urteotan

zabaldua den moda *erromantikoa*. Kazetari-iei hiztegia ebasten jarraitze alde, danteskoa ere esango nuke. Nire estetikak ezer gutxi balio du eta, beraz, kapitalismo teknologikoak bizi duen jendartearen bizi du, halaber, erromantizismo atzerakoiaren: maite zaitudalako lotu nahi zaitut kate motzean, neure burua bezalaxe. Patuak ezinbestean kateatuak gara, laztana.

Aitor dut: mila karaktere pasatuko hitz sorta honek nekez adieraziko du hobeki maitasun giltzarrapoen horrorea. ■





Nora Barroso

♦ ARGIAKO BLOGARIA

Heriotzarekin bizi bai, baina ez dakigu heriotza bizitzen

AMONA NIKOLASA Oreretako bere etxean hil zen iaz. Azken urteetan nekatuta zegoen amona, gorputza minduta zuen. Guzti horri aitonaaren gaixotasuna gehitu zitzaion, alzheimerra.

Aitona Alfredoren gaitza zein zen jakin arteko hilabeteak gogorrrak izan ziren, amonarentzat bereziki. Inpotentzia eta ezin egona sentitzen da. Ondoren gaixotasunaren izena eta beldurra. Bide horrek familiaren arteko kudeaketan eta norberaren sentimenduetan eragina eduki zuen. Ondo egin nahi duzu, baina ez dakizu nola, ondokoa egiten duena ez da sarri zure gustukoa eta barne-kanpo gestio hori zaila suertatzen da.

Aitona-amonak etxean egon dira beti. Hasieran haien hiru alabak egon ziren zaintzen. Aitonak okerrera egin zuenean kanpoko pertsona bat sartu zen etxean. Prozesu mingarria izan zen familia guztiarentzat, amonarentzat bereziki. Amona animatzen saiatzen ginen, lasai egoten, baina ez genuen ia ezer lortzen: “Zaharrak zarete-nean nirekin akordatuko zarete”, esaten zuen. Eta arrazoa zuen.

Gure arazoeekin, eguneroko presan murgilduta, ez genuen amona nola lagundu lortu. Lasaitzeko esan ordez, gehiago hitz egiten utzi behar geniola uste dut, garrantzia kendu ordez bere minean bidelagun izan behar genuela. Guzti horrek tarteka barrua jaten dit. Orain egoera horretaz ikastea besterik ez zaigu geratzen.

Aitonak ia ez du hitz egiten. Momentu batzuetan gure izenekin oroitzen da, hizketaldi txikiak gauzatzeko gai da, eta tarteka, etengabe, gauza bera galdetu edo errepikatzen du. Amona hil zen

goiz hartan aitona ondoan zegoen eta inguruan mugimendu handia egon arren gizona ez zen mugitu, ez zuen ezer esan. Ez dakigu gertatu zenaz konturatu zen edo nola bizi izan zuen.

Joan deneko larunbat batean 97 urteko aitonaarekin bazkaltzen egon ginen eta amona non zegoen galdetu zidan. “Zer ba?” galdetu nion, beste zer esan jakin gabe. “Aspaldi ez dut ikusten”, erantzun zidan. Sukaldean zegoen nire amari kasu horietan zer egiten zuten galdetu nion: “Izebaren etxean dagoela esaten diogu, Nora”.

Hasieran haien hiru alabak egon ziren aitona-amonak zaintzen. Aitonak okerrera egin zuenean kanpoko pertsona bat sartu zen etxean. Prozesu mingarria izan zen familia guztiarentzat, amonarentzat bereziki

Minuturo galdetuko balu bere maiteñoaz, minuturo hil izanaren mina jasoko zukeen akaso. Pentsamendu horrekin oso triste jarri nintzen. Bera bezala noraino daukagu heriotzaren kontzientzia eta nola kudeatzen dugu hori guztia? Norberak ahal duen moduan pasatzen ditu halako trantzeak, baina jaiotza bezain oinarritzkoa den pasarte hauei buruz gure artean gehiago hitz egin beharko genukeela sentitzen dut. Heriotzarekin bizi gara, baina ez dakigu heriotza bizitzen. ■



BERTSO BERRIAK

Julio Soto



XDZ

Doinua: Gai horrek badu mamia.



Iruñeko udaltzainei jarriak

Kaskoa buru gainean,
porra eskutan fuerte
Jai Alaien egon ziren
duela hamar urte.
Ikurrinaren atzetik
gogotsu dihardute.
Gaitz erdi autoen martxa
erraztuko balute...
Ezkerretik ibilita
multa jartzen dizute.
Urdinez jantzita baina,
berdez nahiago dute.

Lehengoa Ignacio Polo
leporaino txanpaina:
“Bai, badakigu nor zaren...
Gure lana da baina”.
Zero kakotx zazpi zortzi (0.78)
hura alkohol usaina...
Handik hoge minutura
tutulu mingaina
zero kakotx sei hirura (0.63)
jaiotsi zen alajaina!
Kasualitatez delitu
ez izateko aina...

Gogoan daukat abuela
gaueko ilargiaz
hatzetan arrosario
bolatxoak, hariak
ahopez “Santa Maria...”
errezoan ariaz.
Fabore tratu, presio,
mehatxu emariaz...
Orain nonbait, jasandako
lan ingurumariaz
gogoratzen da udaltzain
asko Santamariaz... ■

«Ez dut uste jendea nire kontzertuetara modernoarena egitera datorrenik»

Maite Arroitauregi eibartarrak bizitza osoa darama musika instrumentuen artean. Kontserbatorioko ikasketak egiten ari zela konturatu zen musika kultuaz gain rocka eta beste estilo batzuk ere gustuko zituela. Zubirik gabeko bi mundu horiek itzulera gabe zeharkatu zituen eta hainbat rock talderen diskotan esku hartzen hasi zen, azkenean bere alter ego den Mursego sortu zuen arte. Hiru (Bidehuts, 2013) bere hirugarren albuma aurkezten dihardu.

Testua eta argazkiak:

| IKER BARANDIARAN |

Ez zara feminista amorratua, cumbia eta Mario Bross errebindikatzen dituzu, ez duzu post-hardcore edo post-rocka egiten, txeloa jotzen duzu, eusnobei barre egiten diezu eta Eibarrek ez du aspaldi glamourrik izan. Hala ere, modernoaren omen da zu ikustea. Zergatik?

Feminista naiz, nire erara, ez zaizkit etiketak gustatzen, erdi eusnoba izan nintekeen, Eibarrek azken aldian inoiz baino glamour handiagoa dauka, fabrikak berreraikitzen ditugu ekimen kulturalerako... Ez dut uste jendea nire kontzertuetara modernoarena egitera datorrenik... Zer da moderno? Modan dagoena?

Zer ikasi zenuen Anarirekin, kontserbatorioan ikasi ez zenuena?

Jendaurrean jotzeko eskarmentua. Eta, gainera, musikari handien ondoan beti ikasten da zerbait. Agertokiari beldurra kendu nion. Musikaz disfrutatzen, entzulegoaren berotasuna sentitzea zer den. Taldean jotzea, ekipobaten parte izatea...

“Txeloa oso barruan daramadan instrumentua da”. Adiera asko ditu esaldiak, ezta?

Oso txikitatik daukat txeloa ondoan, eta ia egunero jotzen dut, txelo irakaslea izan naiz... Instrumentuak ezaugarri bereziak ditu: gainean jarrita jotzen duzu, bibrazio guztiak gorputzean igartzen dituzu, hankartearen hartzen duzu... Bizitza guztia darama nirekin. Eta munduko musika tresna ederrena da ahotsarekin batera.

Atzerrian animatu zintuzten bakarrik aritzera?

Atzerrian baino, atzerritarrek. Bilbon, musika esperimentalaren inguruan egindako kontzertu batean parte hartu nuen. Kontzertu hartan Pariseko bi musikaririk jo zuten, diskoetxe bat zutenak, nirea asko gustatu zitzaizela esan zidaten eta Parisen jotzera gonbidatu ninduten, beraien diskoetxeko aurkezpen kontzertuan.

Aproposa izan zen zuretzat ezezagunen aurrean jotzea?

Parisen ikusi nindutenen harrera oso ona izan zen, horrek animatu egin ninduen, *myspace* nuen galdetzen zidaten. Eta nik, zer zen ere ez nekien. Izen bat pentsatzen hasi nintzen orduan eta Eibarko Gaztetxean jo nuen. Jendea gustatu zitzaion eta Ander Barriusok estudioan zerbait grabatzea proposatu zidan. Aspalitik neukan grina. Bestela ere emango nuen pausoa.

Zure kantuak, esperimentalak baino, publiko guztientzat direla diozu. Ados nago zurekin...

Nire kantu askok herri kantuen oinarria dute, pop edo musika klasikotik gertu daude, finean kantu sinpleak dira; baliteke horregatik publiko hain zabala izatea: andra edadetuak, gazte eta umeak... Esperimentala? Egiteko modua, formatua... izan daitezke ezohikoak.

Kirola ez omen duzu gustuko, baina emakume-orkestra moduan aritzeak asko dauka kirol fisiko eta burukotik. Noizko kirolarekin lotutako kanturen bat zure tonuan?

Kirola praktikatzea ez zait gustatzen, baina egia da zuzenekoak egiteko kirolariak bezala entre-



natzen naizela. Askok nekatzen naiz zuzenekoetan: kontzentrazio maila izugarria da, gauza asko dira kontutuan hartu behar ditudanak...

Kirolariren baten kanta egingo nuke, dena den: M. Ali, Nadia Comanetxi, Arkonada, Schuster edo Zinedineri buruzkoa. Kirolaren alde epiko-erromantikoa maite dut. Duda barik, Ander Izagirreri eskatuko nioke letra.

Zer da punka zuretzat? Zureak ere badu hortik... Punka Sex Pistols-etik harago dagoen zerbait da. Niretzat gehiago da Black Flag edo Minor Threat bezalako taldeek musika bizi izan zuten modua, sinisten zuten horren alde borrokatzea, garai hartan baldintza kaxkarretan biziz.

Bai, nireak hainbat gauzatan antza dauka punkarekin. Sudur puntan jartzen zaidana egiten dut, ez dut pentsatzen entzuleari gustatuko ote zaion. Talde askok jotzen zuten ezer edo gutxi jakinda, eta nik txeloa izan ezik, beste hainbat instrumentu ere hala jotzen ditut, ukelelea adibidez. Izan daiteke, baita ere, edozer gauza jotzeko beldurrik ez izatea. Nire semeak 7 hilebete bete berrian diskoaren aurkezpena-

“Sudur puntan jartzen zaidana egiten dut, ez dut pentsatzen entzuleari gustatuko ote zaion”.

MURSEGO • ERDIKO KAIERA

rekin hastea, hori bai dela punkia, lehen kontzertua erdi gaupasaz jotzea.

Zure diskoek dendetan “Munduko musikak” apalean egon beharko lukete?

Hasteko, disko dendetan gaizki antolatzen dituzte diskoak, jar ditzatela nahi duten lekuan. Gainera, *world music* etiketa ez zait batere gustatzen; Ramon Trecetek bere programan jartzen zuen musika deskafeinatu xamarra zen.

Zer esango zenieke euskarak musikarako jokorik ematen ez dutela diotenei?

Euskara oso hizkuntza aproposa da, musikaltate handia dauka. R asko, Z, TZ, TX, TS... K ere asko gustatzen zait. Ez dut ulertzen euskal talde dezentek ingelesez abestea, eta horien artean oso gustuko ditudan batzuk. Entzule moduan oso garrantzitsua iruditzen zait taldearekin hizkuntza berean identifikatzea. [Eskuekin bihotza zabaltzeko imintzioa egin du].

Hain zuzen ere, Anarik orriotan esan zuen legez, bere euskaraz edozein estilo landu daitekeela demostratu zuen bere belaunaldiak...

Bai, hala da. Egia da nik tarteka asmatu egiten ditudala hizkuntzak, musika tresna aukeratzen dudana moduan, kantuari musikalitatea gehitzeko asmoz, baina zerbait kontatu nahi dudanean, hitzei esanahia eman, euskaraz egiten dut, nire ama hizkuntza delako eta sakonago aritu naitekeelako. Halako zerbait ingelesez egitea arrotza izango litzateke niretzat.

Victor Iriarterekin aspalditik duzu harremana eta gauza ederrak egin dituzue elkarrekin...

Lagun onak gara eta aspalditik ezagutzen dugu elkar. Batak bestea animatu izan dugu gauzak egitera eta askotan kolaboratu izan dugu elkarrekin. Nire proiektuetan beti dauka berak lekuren bat, eta nik beretan. Esango nuke gustu estetiko antzekoa dugula gauza askotarako, berak ikuspegi erradikalagoa dauka eta horrek aberastu egiten du nire lana.

Emozioetara iristeko modu onena partiturak alboratzea al da?

Partiturak interpretatzen ere emozionatu zaitetzke, baina oso bestelako emozioak dira. Musika konposatzean sortzen den emozioak ez du parekorik, sortze prozesuak bete egiten zaitu. Eraldatu, buruak katakrok egiten dizu eta horixe bera bilatzen duzu entzulegoarengan.

Nola bizi izan zenuen oskol apurtze hori, “Rage Against the Machine txeloz jotzen duena” deitzen hasi zitzaizunean?

Lotsa eta emozio nahasketa. Gustuko nuena egiten nuen nire instrumentuaz. Kontserbatoriora Anestesia, Dut eta halakoak entzuten

joaten nintzen; eta pentsatzen nuen: “Nire ikaskideek ez dute beste musikarik entzungo? Ez dute gogorik rocka entzun eta klasikoa ez den beste kontzerturen batera joateko?”. Arra-roak haiek dira, ez ni.

Hain mundu apartekoak dira?

Bai. Eta ez lukete izan behar. Azken finean guztia da musika eta musika-lengoaia bera da. Soinuek melodiak sortzen dituzte eta konbinatzean harmoniak. Hori da funtsa. Baina musika kultuak rocka gutxies-teko joera du. Niri kosta egin zitzaidan kontserbatorioa bukatzea, diziplina, bakardadea, gogotik jo beharra... gogorra zen, baina, tira, horrek guztiak egin du orain naizena.

Esaten dute probokatzailer/komunikatzaile onenak eta Aki Kaurismaki bakarrik direla gai edozein astakeria esanda aurpegi espresio berari eusteko. Antzezle sena daukazu?

Aktore sena beti izan dut, bai. Txikitan esaten nuen arte dramatiko egingo nuela. Agian zutik kantatzeko eta mugitzeko aukera banu espresioa ere gehiago aldatuko nuke. Zipitzik egin gabe gelditzen banaiz, esaten dudana sinisten dudana seinale. Eta Kaurismakirena, meritua da,

izan ere, zurrutari ematen dion bezala emanda, espresio berari eustea marka da gero!

Zaila izan da disko hau grabatzerakoan beste bati –Ibon Rodriguez– zure munduan sartzen uztea?

Alderantziz. Ibon konfiantzazkoa da, aspaldi-ko laguna. Gustu oso ona dauka, nirearen antzekoa, ezagutzen nau, ezagutzen ditu kantak, egiten dudana, buruaren atzean hirugarren belarria daukala esan ohi dut. Zuzendu dizkit letrak, ahoskera... Errepikatzeko moduko esperientzia izan da, noski.

Gero eta barneratuago daukazu Mursego kontzeptua?

Bai. Gustatzen zait, baina horren bila ere banabil, joera daukat. Gero eta gehiago jakin, orduan eta hobeto. Gauza asko ditu interesgarriak: ugaztun hegalaria bakarra, ultrasoinuak erabiltzea, buruz behera lo egitea, zelan komunikatzen diren, mugitzen diren, ehizatzen duten... Ultrasoinu horiek pertsonok ezin ditugu entzun. Batzuk odola xurgatzen dute, banpiroak, hilezko-rrak... Nahiz eta ni berakatzaren oso zalea naizen. ■



“Ez dut ulertzen euskal talde dezentek ingelesez abestea. Entzule moduan oso garrantzitsua iruditzen zait taldearekin hizkuntza berean identifikatzea”



Arratzuko Udala

Arratzuko udala Ibilaldiarekin!

Ekainaren 1ean erdu Gernikara!

www.arratzu.com



Altxor bat

PERLAK taldearen kantuak entzun ditudanean poztu egin naiz. Estimatzekoa eta txalotzekoa baita taldeki-deen etorria, ausardia, bizitasuna eta naturaltasuna, eta egiten dutena Euskal Herriko musikaren munduan ohikoa ez izatea; zerbait desberdina edo berezia egitea, alegia.

Kantuek alaitasuna eta bizipoza transmititzen didate, nahiz eta giroak hainbatetan apur bat ilunak izan. Horren harira, “Tximeleten udako egun bat bezalakoa izan beharko luke gure bizitzak”, CDan idatzita ageri da Perlak izenaren ondoan.

80ko hamarkadako post-punk aireak suma daitezke Perlak taldearen kantuetan. Kantuek indarra badute. Erritmoak, oro har, erdi denborakoak dira, eta doinueta ukitu ilun bat antzeman daiteke, baina doinu koloretsuak dira. Hori lortzeko, teklatuak asko laguntzen dute, teklatu bidez kantuak giro bereziz jantzi baitituzte.

Melodiak atseginak dira, nire gusturako. Abeslariak ondo kantatzen dute, eta denek beren musika tresnak ongi jotzen dituzte, birtuosismo eta konplikazio handirik behar izan gabe, soberan egon litezkeen apaingarriak behar izan gabe, beren kantuak egiteko, *Perlak* kantuak. Izan ere, taldekideek kantu bat egiteko gauza gehiegirik ez dutela behar ematen du: imajinazioa, grina eta nota batzuk besterik ez.

Hitzak entzutean gogoeta egiten hasten naiz. “Letrek pentsarazi egiten dute. Zerbait gairitu duzula dirudienean eta horretatik asko ikasi duzula ematen duenean, berriz etortzen da zartateko bera. Existenzialista puntua dute letrek”. Taldekideek

beren hitzen gainean hori esan zuten diskoaren aurkezpenaren bezperan, apirilean.

Perlak taldea Zarauzkoa (Gipuzkoa) da. Ilargi Agirre (bateria, koruak), Maite Martiarena (ahotsa, gitara, teklatuak), Oihane Abarrategi (ahotsa, gitara, teklatuak) eta Patxi Agirre (ahotsa, baxua, teklatuak) dira taldekideak. 2013an elkarrekin jotzen hasi ziren, eta diskoko kantuak azaroan Mungiako (Bizkaia) Gauda estudioan grabatu zituzten.

Grabazio on bat egin dute, diseinu lana ere txukun egin dute, eta lan polit bat osatu dute. Aitor Abio produkzioaz arduratu da, Jon Asier Zubelzu masterizazioaz, eta nahasketak bien artean egin dituzte. Kevin Baumanek eta Nagore Etxabek argazkiak egin dituzte, eta Nagore Etxabek berak eta Xabier Lertxundik diseinu lana burutu dute.

Perlak taldeko kideek elkarrekin entseatzen urtebete eskas daramate, baina jotzeko erraztasuna sumatzen zaie. Beren kantuak jotzen ederki pasatzen dutela nabari da, eta hori ere aise egiten dutela ematen du. Beren lehen lana oso gustura entzuten dut. Zazpi kantu dira, eta CD osoa arin entzuten da. ■




Perlak

Perlak

Autoekoizpena, 2014

Joxi Ubeda





Erraiak
Danele Sarriugarte
Elkar, 2014

Plok-plok-plok

LIBURU HONEK, kontrazalean irakur daitekeenez, “bikote haustura mingarri bat du abiapuntu”. Protagonistak barne bakarriketaren bidez bere pentsamendu eta sentimenduak okada luze batean botako dizkigu orriotara. Gero, botatakoari begiratu gero, botere harremanei buruzko hausnarketak topatuko ditugu tarteka, nola familiaren barruan, kuadrilla eta lagunekin, hala herria eta komunitatearekiko norberaren kokapenari dagozkionak. Maitasun erromantikoaren pisuari buruzkoak ere han hemenka egongo dira sakabanatuta, menpekotasun afektiboa eta sexu eta desio jolas eta borrokak. Loturak, kateak, bakardadea eta ihes egiteko beharra. Parral, Zuloa, Berlin, Denver, Beefeater, Toblerone, Nirvana edo Anari ere hor daude. Charles Bukowski ere bai, jakina.

“Hank Txinaski (euskal) emakume (gazte) a balitz?” Galdera hau izan zitekeen kritika honen izenburua, baita liburu honen haria ere. Irakurketa honek gogora ekarri dit Ean duela urte batzuk uztaileko gau batean taberna batean izandako elkarriketa bat. Nola gustatu ahal zaio Bukowski feminista bati? Nola irakurri ahal ditu feminista batek misogino baten ibilerak eta horrekin gozatu? Nire ustez liburu hau izan daiteke galdera bihurri horri

erantzuna emateko saiakera bat, (baita paragrafo honen hasieran botatakoari ere).

Iban Zalduak Uxue Apaolazaren lehen lanaren hitzaurrean zioen (buruz ari naiz) bertan irakur zitekeela zakilak loditu egiten zirela. Danele Sarriugarteren lehen lanaren hasiera aldean ordea, alua bigundu eta umeldu egiten da, eta amaierara hurbiltzean protagonistak dio gozatzen duela bere maitalearen aurpegiari begiratzeko uzkie taladratzen diotenean. Kritika honek “Letrak mamituz” izenburua ere izan zezakeen. Euskal emakume idazleak azken urteotan gorputza lehen planora ekartzen ari dira eta Sarriugarteren lanak joera honi ematen dio segida. Erraiak. Bihotzari, gibelari, hesteei, aluari entzuten die protagonistak. “Gorputza da jomuga eta lanabes” irakurri ahal dugu. Mari Luz Estebanek gurerak ekarritako subjektu haragiztatua hitz egiten dio irakurleari. Egokitu zaion rol sozialaren lokarriak agerian utziz doa orritz orri narratzailea, orainaren eta oroitzapenen artean, eta kate horiek apurtu nahian urratutako azalari begira dabilenaren hotsak ditugu irakurgai. ■

Amaia Alvarez Uria





11. EDIZIOA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuaren azoka

P
dohainik

<http://bioterra.ficoba.org>
#Bioterra2014



ZATOZ IDEIA BERDEAK EZAGUTZERA

Ekainaren 6tik 8ra
FICOPA / Irun

ANTOLATZAILEA



FICOPA

SABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euzko Legebiltzaria



kutxa



irun

3, 2, 1. Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa

Non: Bilboko alondegia.
Noiz: Maiatzaren 26tik 31ra.

Eszenako mugak haustea helburu

MAIATZAREN 26tik 31ra bitarte, 3, 2, 1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa hartuko du Bilboko Alondegiak. Hiru ediziotatik bigarrena osatuko du aurtengoa, eta iaz bezala, nazioarteko proposamenik berritzaile eta ausartenak bilduko ditu. Arte eszenikoetako diziplinak bateratu baino gehiago, haien arteko mugak haustera jotzen dute konpainiak.

Diziplinen arteko elkar eragina dugu arte eszenikoen gaur egungo joera. “Dagoeneko antolatzaileok besterik ez gara proposamen artistikoak sailkatzen saiatzen diren bakarrak”, diosku Fernando Pérez Alondégiko programatzaileak: “Artistak eurak askoz askeagoak dira. Bakoitza diziplina batean oinarritzen da, baina hura abiapuntu hartuta inolako konplexurik gabe aritzen dira gainerako-etan sartu-irtenean”.

Arte eszenikoak arte biziak diren heinean, zuzeneko esperientzietan daude oinarrituta, eta ikus-entzunezko medioak erabiltzen badituzte ere, errepikaezinak dira, aldatu egiten baitira antzeztzen diren aldi oro. Aurtengo proposamen askok esperientziaren ideia dute motorea. Alegia, ikusleak aktore bihurtzen dituzte, “artistarekin aurrez aurre egoteko aukera ematen diete, edo, kontraesana badirudi ere, dantza entzuteko aukera ematen diete”, azaldu digu Pérezek.

Diziplinen arteko nahasketaren adibide gisa, Marie-Caroline Hominal-en dantza-performancea dugu aipagarri, baita berak zuzendutako *masterclass* edo ikastaroa ere. Normalki bakarkako eta binakako lanak sortu ohi ditu, Alondégian aurkeztuko duen *Le triomphe de la renommée* obra bezala. Formatuak ahaztu eta edukietara jotzen badugu, aldiz, eraldaketak kezkatzen du Marie-Caroline



VASCO CELIO

Casabranca taldeak Atlas Bilbao performance-antzerkia erakutsiko du.

Hominal, eta gai horixe jorratuko du ikastaroan.

Portugalgo Casabranca taldeak *Atlas Bilbao* performance-antzerkia erakutsiko du. Bilboko ehundik gora lagunek parte hartuko dute muntaketa erraldoi honetan. Ana Borralho eta João Galanteren poosamena da *Atlas Bilbao*, performanceetan eta antzokietan eskarmentu handikoak biak. Gorputza eta hitza abiapuntu hartuta, partaideen bakarkako zein taldeko lana interesatzen zaie. Hiri atlas ugari osatu dute honez gero. Besteak beste, Rio de Janeiro, Basilea, Helsinki, Milan eta Bruselakoak.

Bruselako Plastique Fantastique taldeak *Polifemoren Begia* aurkeztuko du. Ez du lehen aldia Alondégian. Behin-behineko arkitekturatan iaioak dira, eta edizio honetan Polifemoren begi erraldoia egingo dute propio. Perspektibaz gain, fikzio eta errealtatearen eta publiko eta pribatuaren arteko mugak landuko dituzte Plastique Fantastique taldeko kideek.

Euskal sortzaileek ere tokia izanango dute Topaketan, besteak beste, Sra. Polaroiska eta Elsie Ansareok,


eta Ion Munduateren laborategiak. Ainara LeGardon eta Xabier Erkiaren mapa sonoroak ere han izango ditugu. “Euskal artisten proposamenak gaur-gaurkoak dira, nazioarteko konpainiek ekartzen dizkigutenak adinakoak” diosku Fernando Pérezek: “Izan ere, gure sortzaileetako batzuk nazioarteko zirkuituetan aritzen dira; beste batzuek, aldiz, horretarako kalitatea izan arren, zailtasunak dituzte nazioarteko ibilbideari ekiteko”.

Topaketa honen helburuetako bat Euskal Herriko artisten eta gainerako herrialdeetako profesionalen arteko zubiak eraikitzea da, arterako kode ezberdinak elkarri erakutsi eta partekatu ahal izan ditzaten. Ildo honetatik, “esparru askotako nazioarteko profesionalak elkarrekin harremanetan jartzen lagundu nahi dugu: programatzaileak, artistak, koreografoak, performerrak, komunikabideak, jaialdietako zuzendariak, dantzariak eta abar eta abar”. ■

Myriam Garzia



Gurutzegrama



ANGIE HARMS-CC BY

Sudokuak

Erraza

	6	2	1	5	4	8		
5		4		9	2		7	
		9				5		
1			4	7	2	6		
			9	3	6			
7	6	2	1			5		
	7				6			
4		3	7		9		8	
	3	6	2	9	4	1		

Zaila

				6		4	
		3		7	6		
2				8	5		
	1			3		9	
6			8	2			7
	3		4			1	
		7	3				4
		9	7		2		
8			5				

Ezker-eskuin:

1. Eskumen, botere. Galtza. 2. Leku batek berezkoa duena. Idi, hitz-elkarketetan. 3. Xake jokoaren puntuak. Malko handi. 4. Zirkulazio-seinale. Norekin atzizkia. 5. Kataluniako herritarrak. Jaurtiz. 6. Nafarroako herria. Apaltzera behartu. 7. Txirrin. Zeharo, guztiz. 8. Tribu. Bihotzaren beheko aldeko bi barrunbeetako bakoitza.

Goitik behera:

1. **Argazkian**. 2. Zendu. Zilarraren sinbolo kimikoa. 3. Bere erlijioari uko egi-ten diona. 4. 51 zenbaki erromatarrez. Hegazti mota. 5. Buztin zuri. 6. Uhaga. Banka Burtsak. 7. Musika estilo. Bare, lasai. 8. Ezeztapen. 9. Kilima. 10. Itsas arrain. Pinu mota. 11. Italiako hiria. 12. Zakurrak. 13. Debeku, gaitzespen. 14. Larri. 15. Fruitu, emaitza.

Kike Amonarrizen umorea

Lagunaren bila



Kontzertua amaitu eta jendea trumilka ari da ateratzen aretotik. Jendetza guztiaren erdian, batera eta bestera aztoratuta dabiltzan bi neskak estropezu egiten dute elkarrekin.

— Barkatu! Larrituta nabil. Mutila eta biok etorri gara kontzertura, baina oharkabea, jendearen artean galdu egin gara eta beraren bila nabil.

— Hau kasualitatea! Niri ere gauza bera gertatu zait. Eta nolako da zure mutila?

— Beltzarana. Ia bi metro luze.

Lerdena, beso gihartsuekin. Ezpain haragitsuak eta begi berdeak ditu... Eta zurea nolako da?

— Beno... Oraingoz ahaztu dezagun nirea eta saia gaitzen zurearen bila.



Soluzioak

8	5	3	6	2	9	4	1	7
6	4	1	3	7	5	9	2	8
2	7	4	8	1	6	3	5	9
9	7	6	2	1	8	3	5	4
4	2	5	3	6	7	8	1	9
3	1	8	5	4	7	2	6	9
5	3	4	8	6	3	5	4	2
1	8	9	7	6	3	5	4	2
7	6	2	1	5	4	8	9	3

Erraza

3	8	1	5	2	4	7	6	9
4	6	9	7	8	1	2	3	5
5	2	7	3	6	9	1	8	4
7	3	2	4	9	5	8	1	6
6	9	4	8	1	2	3	5	7
8	1	5	6	7	3	4	9	2
2	4	6	9	3	8	5	7	1
9	5	3	1	4	7	6	2	8
1	7	8	2	5	6	9	4	3

Zaila

Ezker-eskuin:
1. Ahai, Pakia. 2. Tipikoa, le. 3. Bilo, Anpulu. 4. Slop, Kin. 5. Karalana, Botaz. 6. Igarri, Apalarazi. 7. Tinbre, Erabat. 8. Klan, Bentrikulu.
Goitik behera:
1. Aterkiaz. 2. Hil, Ag. 3. Apostata. 4. Li, Tatin. 5. Kaolin. 6. Pampa. 7. Kap, Nare. 8. Ukepen. 9. Kilika. 10. Arun, Ier. 11. Bat. 12. Orak. 13. Tabu. 14. Azal. 15. Ziru.

Lurraren barrunbeetan turista... edo esploratzaile

Euskal Herriaren zati handi bat kareharrizkoa da, eta kareharriak disolbatzeko duen erraztasunari zor dizkiogu, hain zuzen, gure paisaia ezagunenetako batzuk. Begientzako gozamena ez dago gainazalean bakarrik, ordea; milioika urtez, urak, harkaitza zulatu eta zulatu, kilometroetako zauria egin du lur azpian. Euskal Herrian dauden milaka leizeetatik, gutxi batzuk daude atonduta bisita egiteko. Horietako hiruren berri aurkituko duzu ondorengo orrialdeetan: Arrikruz-Oñati, Gipuzkoan; La Verna, Zuberoan; eta Mendukilo, Nafarroan. Badago, hala ere, kobazuloen magia beste era batera dastatzea. Izan ere, leize gehienek ez dute ez aterik ez gidarik. Batzuetan erraz sar daiteke; gainerakoetan, berriz...



AMET



Euskal Herria ezagutuz
OÑATI (GIPUZKOA)

Arrikrutz, haitzuloko lehoiaren aztarna

Arrikrutz-Oñatiko koba Gesaltza-Arrikrutz-Jaturabe multzo karstikoaren barruan dago. Aizkorriko magalean eta Arantzazu Santutegirako bidean aurkituko duzu, Oñati herrian, Araotz auzoaren atarian, Gipuzkoako koba zabalenetako bat, urak moldatutako gune berezian. Sei solairutan hamabost kilometroko galeriak, iraganera bidaia egiteko.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

Argazkiak: Oñatiko Udala

MILIOIKA URTEAN urak moldatutako kobak ikusteko aukera du bisitariak 2007 urteaz geroztik. Arrikrutz-Oñatiko kobako 53. galeria da nahi duen orok ezagutu dezakeena, 500 metro behera eginda. Ordu-betean egiten den bidaia, "ikusgarria" bisitari gehienek esanetan. Gipuzkoako kobarik handienetako den honek historiaurrean Euskal Herrian zegoen fauna ezagutarazten dio bidaiaari.

Haitzulo barruko ibilaldietan, sistema informatiko aurreratuari

esker, gai ugari lantzen dira, ikuspegi pedagogikotik eta modu interesgarrian. Arrikrutz-Oñatiko koba Euskal Herriko aitzindarietako bat da espeleologia, arkeologia eta paleontologian. Bertan aurkitu dituzte, besteak beste, hamaika hartzen aztarnak. Baina protagonista nagusia haitzuloko lehoia izan da azken urteotan. 1966. urtean Iñaki Zubeldiak eta Jesus Manuel Marotok aurkitu zuten animalia horien hezurdura osoa; hiru metro eta erdi luze zituen, eta 400 kilo inguru.

Animalia horien guztien hezur batzuk hibernazio garaikoak dira, eta beste batzuk, aldiz, bertara jatera sartutakoan hildakoenak; barrura sartu eta uraren maila igotzean itotako animalienak, zehazki. Hartz gehienak, adibidez, hibernazio garaian hil zirela dio Alvaro Arrizabalaga arkeologoak.

Arrikrutz-Oñati ezagun bihurtu zuen lehoia

Animalia guztien historiak bisitariak aho zabalik uzten badituzte ere,

Abentura parkea
Urtebetetzea
Ezkondu aurreko agurra
Ikastetxeak
Familiak
Lagunak
Luze Luzeak,
200 m baino luzeagoak

Atsegin, Zirrara, Hezkuntza... Zuhaitzetan

Forestal Park
Bilbo Auzoak

Informazioa ta erreserbak:
reservas@forestalparkbilbao.com
608 444 939

www.forestalparkbilbao.com



Ezkerrean, goian, 1966an aurkitutako lehoi hezurduraren erreplika. Azpian, eta lerro hauen gainean, Arrikrutz-Oñatiko 53. galeriako irudiak.

jakin-min handiena, esan bezala, lehoiak pizten du normalean. Harena da Iberiar penintsulan agertu den hezurdura oso bakarra. Bereztasun horrek ere eman du ezagutzera Arrikrutz-Oñatiko koba. Gaur egun animalia ez dago bertan, Eusko Jaurlaritzaren biltegi batean baizik. Nolanahi, haren erreplika ikusi eta entzun ahalko du bisitariak bidean. “Oso ongi egina” dagoela dio Arrizabalagak. Eta hala, benetako lehoiak sortzen zuen zirrara bera sortzen du erreplikak ikusleengan.

Piztien aztarnengatik ez ezik, Arrikrutz-Oñatiko koba “potentzialtasun handiko lekua” da Arrizabalagaren aburuz, Kuaternarioko sedimentuengatik besteak beste.

Sandailiko ur miragarria

Leizeak berak bakarrik ez, kondairak badu garrantzirik bisitan. Elezaharrek dio inguruko emakume antzuek, emankorrek izateko, bainua hartzen zutela Sandaili kobako uretan, Arrikrutz-Oñatitik oso gertu, milaka urte lehenagoko jentilen ohituri eutsiz. Gaur egun, kondaira horrek utzitako aztarnak ikus daitezke inguruan; besteak beste, haurren arropa baitago duela urte batzuk emakume antzuek bainua hartzen zuten leku berean. Ikusgarria da, halaber, Sandailiko koban bertan eraikita dagoen baseliza txikia. ■

Informazioa

Erreserbak egiteko, 943 08 20 00 edota www.oinati.eu/turismoa

**IBILALDIAK
GUREKIN
ANTOLATU**

AUTOBUSAK
Aizpurua

www.autocares-aizpurua.es · info@autocares-aizpurua.es
20170 USURBIL · 943 363 290


PETROMIRALLES
GASOLINA-ZERBITZUGUNEA

Karrika industrialdea / 6. partzela
20140 ANDOAIN (Gipuzkoa)
Tel.: 943 305 058

24 ORDUZ

63 hornitze gune Petromiralles Cards-ekin

GASOLINA A GASOLINA B GASOLINA C GASOLINA D DIESEL AdBlue



Euskal Herria ezagutuz

SANTA GRAZI (ZUBEROA)

La Verna, espeleologia denen eskura

Espeleologoek atzeman zuten leizean argindarra ekoizteko parada ikusi zuen EDF Frantziako energia enpresa publikoak behinola. Mendian bidea egin eta tunel bat zulatu zuten, baina xedea bertan behera gelditu zen, SHEMA enpresa pribatuak zentrala egin arte. EDFk garai batean ireki bidetik pasatzen dira gaur egun bisitariak munduko leize handienetarikoa sartzeko. Santa Grazitik bi ordu eta erdiko ibilbidea eginez iristen da La Vernara.

| JOANES ETXEBARRIA |

LA VERNA leizea, eta San Martiko amildegia oro har, espeleologoek dute hobekien ezagutzen. La Verna bera ez litzateke publiko zabalean ezagutuko lur azpiko hainbat espelezioi esker ez balitz. Leize erraldoia atzeman aitzin, 1952an, Marcel Loubens espeleologoak bizitza galdu zuen harako bidean. Eta ez zen bakarra izan. Gaur egun, autobusean edo autoan ere iritsi daiteke sarrerara, bi ordu eta erdiko ibilaldia oinez egin nahi ez bada, edo egin ezin bada. Gunea ezinduei ere ego-

kitua baitzaie. 660 metroko tunela zeharkaturik bisitatu daiteke, kasakoa buruan baina lasai-lasai, munduko leizerik handienetako bat.

Sei Notre-Dame sartzeko adina

194 metro goratasun, 240 metro zabalera, haren handitasunaz ohartzeko aipatu ohi da Pariseko sei Notre-Dame katedral sartzten ahal liratekeela leizean. Gaur egun bertaratzen denak eskala begi-bistan du, leizeko xoko guztietan ezarriak diren 1,80 metroko goratasuneko maniki-

esker. Halere, La Vernaren tamaina ezin da esplikatatu datuekin. Harrigarria da. Globo gidatu bat puztu eta hegan jartzeraino –2003an–. Handitasunaz gain, leizea noiz eta nola sortu zen, Pirinioak sortu aitzineko arroken presentzia... lur azpiko gela erraldoiak badu interesa.

Interes pribatua ere bai. SHEMA enpresa frantsesak La Vernako ur jauziaren indarra baliatuz argindarra ekoizten du bertan, eta gela guztia argiztatzeko baliatzen dute, besteak beste. 2.000 bat etxetara ere



ITSAS MENDI

Karabanak eta autokarabanak



► **Europako marka garrantzitsuenak :**
KNAUS, BENIMAR, HOBBY,
BAVARIA, PILOTE.

► **Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua.**

E-posta: itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com


Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)

Tel. 943 59 32 90 - Faxe: 943 59 41 73

JF GODART



JF GODART



SERGE CALEAULT / SPÉLÉO MAGAZINE



Gaur egun La Vernara sartzen denak eskala begi-bistan du, leizeko xoko guztietan ezarriak diren 1,80 metro goratasuneko manikiei esker. Halere, La Vernaren tamaina ezin da esplikatu datuekin, harrigarria da. Globo gidatu bat puztu eta hegan jartzeraino (ikus eskuineko beheko argazkia).

iristen da argindarra bertatik. Zentral elektrikoa egitearen ideia EDF enpresa publikoarena izan zen hasieran. Hain zuzen, EDFk zuen, helburu horrekin, mendian gaindi bidea ireki leizearen sarreraraino, baita harrian tunela zulatu ere. Xedea bertan behera utzi eta zentrala enpresa pribatuak egin zuen azkenean. Bidea eta tunela bisitariak baliatzen dituzte egun.

La Verna bisitatzeko manera desberdinak badira, erosoenetik kirola-

rienera. Oren bateko bisitan, tunela zeharkatu eta bazter batean dauden terrazetatik gela osoa ikus daiteke. Oren bat edo biko bisitetan aldiz, talde handiak joan daitezke, 30 pertsona arte, leizearen isiltasunak duen magia desagerraraziz gehienean. Argibideak ere, espeleologoen abenturetatik leizearen formazioraino, zale-zale egiten dira, datu andana bat asimilatzea eragotzirik. Beste formulak ere proposatzen dituzte Santa Graziko harrera

gunean. Eta prezioak, araberaokak: ordu bateko bisita hamazazpi eurotan, bi ordukoa 27 eurotan eta abentura deitzen dutena, hots esplorazioa, 230 eurotik aitzina bosteko talde batentzat, nahi den denboraren arabera. ■

Informazioa

www.laverna.fr webgunean



LIZARRA
KANPINA

Lizarr (Nafarroa)
☎ 948 55 17 33
www.campinglizarra.com



Aldori landetxea

Zabale, 8 · Muxika (Bizkaia)
☎ 94 627 15 09
www.aldori.es





Lerro hauen gainean, Laminosin gela. Ezkerrean, Herensugearen gotorlekuko txoko bat.

sun. Horrez gain, milioika urtean urak bere lana nola egin duen ere ulertzen da bidean”, dio bisitari batek.

Lasaitasun horretatik ihesi, abentura bila dabilzanak badute lekua Mendukilon. Soka lodiz lagunduta, kobaren bihotzetik haratago, hes-teetara ere iritsi ahalko baitira, koban behera 70 metro eginaz. Lurrazaletik hain urrun dagoen altuera horretara jaitsita, kaskoetan dituzten argiak itzalita, isiltasuna bilatzen dute une batez abentura maite duten horiek; hala, kobazuloaren barrenak entzun eta bizitzeko aukera izaten baitute. ■

zailtasunak erraztuta, nahi duen orok egin ahalko du koban barrena bidea. Bisitarien aurpegieta ikusten da lurraren azpiko sekretuek sortzen duten zirrara. Fami-

liak dira nagusi, eta haurren begiek islatzen dute egokien koba hauen handitasuna. “Mendi barrualde hori zer den oso ongi sentitzen da; zer den iluntasuna, eta zer lasaita-

Informazioa

www.mendukilo.com, edota
948 396 095 telefonoan



- Llantak
- Aire egokituak
- Aparkatze sistemak
- Elurretako kateak
- Kafeterak
- Multimedia



BEASAIN

☎ 943 88 17 00
anzizar@anzizar.com - www.anzizar.com

SaiazGetaria
H o t e l a



Roke Deuna, 25 • GETARIA
www.saiaszgetaria.com • Tel.: 943 140 143

Ez da erosoena, baina merezi du

Milaka kobazulo dago Euskal Herrian, baina gutxi dira ezagun-ezagunak. Are gutxiago –ez dira dozenara iristen– bisitarako prestatutakoak. Gainerakoez gozatzeko, jeneralean, espeleologian gutxi-asko trebatutakoa behar du. Ez da eroso, materiala garestia da, arriskutsua izan daiteke... baina harra barnean sartzen bazaizu, kostatuko zaizu ateratzea.

| UNAI BREA |

WIKIPEDIA OROJAKILEAK irakasten digu alemanetik datorrela karst hitza. Zehazki, Eslovenia eta Italia arteko Kras edo Carso eskualdeak alemanez daukan izena da. Gaur egun, paisaia mota jakin bat izenda-

tzeko erabiltzen da terminoa; orobat, esan ohi da urak kareharria disolbatzean sortzen den paisaia dela karsta, baina hori hautsi beharreko mitozat jotzen du Arantza Aranburu EHUKo geologoak: “Ia edozein harri bihurtu daiteke karst, denbora emanaz gero eta ura behar beste azidotuz gero”. Behin ñabardura hori eginda, Euskal Herrian disolbatzeko errazak diren kareharri ugari daukagula gaineratu du Aranburuk. Horrek karsta eragiten du ezinbestean, eta karstarekin batera, leizeak. Bai erruz eragin ere.

Kopuru zehatzik ez

Milaka koba dago gurean. Zenbat, zehazki? Ez jakin. Inoiz horretan ahalegindu denak ederto daki zein zaila den edozein arlotako Euskal

Herri osoko datu bateratuak ematea. Kobazuloak ez dira salbuespena. Javi Moreno Euskal Espeleologoaren Elkargoko kideak azaldu digunez, euren elkarteak eginda dauka Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako leizeen katalogoa: 5.600 inguru. Elkargoak argitaratzen duen *Karaitza* aldizkariaren azken zenbakian horien guztien sailkapena ageri da, baita nahi bat ere: “Ea talde nafarrak animatzen diren eta denen datuak batzen ditugun Hego Euskal Herriko barrunbeen katalogoa osatzeko”.

Erraz igartzen da: Nafarroan katalogorik ez dago oraingoz, nahiz eta, Morenok dioskunez, batzuek hasiak diren gabezia konpontzeko



JAVI MAEZTU

Azpea
N A V A R R A
Denominación de Origen

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)
www.bodegasazpea.com

Gorozika
Aterpetxea
www.gorozika.com

Gorozika Auzoa, 25 · Muxika (Bizkaia)

Harremanetarako:
☎ 946 731 332 · gorozikanatura@gmail.com

TXALUPA

Janari
tradizionalean
espezializatua

**Jatetxea
Taberna**

☎ 943 429 875
Fermín Calbetón, 3
20003 Donostia

lanean. Ipar Euskal Herriaz beste horrenbeste esan dezakegu; alegia, daturik ez dagoela.

Zifra zehatzik ezin emana ez da Euskal Herriaren zatiketaren ondorioa bakarrik. Espeleologiarekin berarekin zerikusia duen arrazoi bat ere badago: etengabe aurkitzen dituzte kobak. Eta ez metro gutxiko zulotxoak bakarrik, baita kilometro askoko luzera duten galeriak ere.

Ez dira egoteko leku erraza

“Gehienek ez dute izenik”, azaldu digu Javi Morenok, “kode batez izendatzen ditugu”. Oso gutxi dute ehun metro baino gehiago, baina luzeenak oso luzeak dira. 50 kilometroraino iritsi daitezke. Horietan sartzen den espeleologoak egun batzuetarako plana egin beharko du, bestela ez baitago denborarik dena ikusteko. Kobak, oro har, ez dira egoteko leku erraza, gutxiago mugitzeko. “Ordubeteen 200 edo 300 metro

egiten ditugunean abiadura handiz ari garela esan ohi dugu”, adierazi du Morenok.

Trebakuntza handiko espeleologoek kontuez ari gara, noski. Kobazulo gehienetan sartzeko ezagutza tekniko batzuk behar dira –sarrera,

Kobazulo turistikoak ez dira espeleologiaren sekretuetan murgildu nahi dutenen alternatiba bakarra, badira bisita merezi duten aterik gabeko kobak

maiz, sakonera handiko osina izaten da—, eta horrez gain oztopoa izan daiteke barruan egote hutsa. Jende askori ezinegonia eragiten dio ilunpean ibiltzeak. “Ez dakit zergatik”, dio Javi Morenok. Eta askotan, norbera ozta-ozta kabitzen den zirrikietan ibili behar da.

Horrek ez du esan nahi espeleologiaren sekretuetan murgildu nahi

dutenentzat alternatiba bakarra kobazulo turistikoak direnik. Badira bisitatxoa merezi duten aterik gabeko kobak. “Turismorako prestatu gabekoetara ere joaten da jendea egun pasa”, diosku Arantza Aranburuk; “tokian tokikoak ondo ezagutzen du inguruan zer daukan, eta gainera historikoki kobak erabiliak izan dira, udan ganadua bero sapatik babesteko, esaterako”.

Gidarik gabeko txangoa egiteko moduko koba batzuk nabarmendu dituzte Aranburuk eta Morenok: Baltzolako koba, Diman; Supelegor, Gorbeia inguruetan; Los Goros, Arabako Oto Goien herrian... Azken horretan kontuz ibili behar da, aktiboa baita, Aranburuen hitzetan. Bestela esanda, euria eginez gero ur maila bat-batean igo daiteke eta barruan dagoena harrapatu. Euririk gabeko egunetan baino ez sartu, hortaz.

Sarbidea erraza denetan ere, iluntasunaren erreinuan komeni da argi ibiltzea, Los Goroseko adibideak

Juantxo

TABERNA

Ogitarteko eta pintxo
bero eta hotzetan
espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

URPA
autobusak

22, 28, 31, 55 eta 60
plazakoak

Autobus literadunak
Europar zehar ibiltzeko

Ubilluts auzoa, 55. poligonoa, 9.eraikina-4 · 20140 Andoain
Tel.: 943 305050 Faxa: 943 305060
www.autocaresurpa.com · info@autocaresurpa.com

Urrutia
nekazalturismoa

Santa Marina, 9 · Osma (Araba)
☎ 945 063 167 / 627 082 799
www.agroturismourrutia.com

Urdabai On
Urdabai On Kultura eta Aisialdi Zerbiztuak Koop. Elk. Txikia



Munarriko koba,
Foruan (Bizkaia).

erakusten duenez. Horrelako zereginetan eskarmentua duten gure bi mintzakideek eskuargi bat baino gehiago eramatea eta, bakarrik joatekotan, aurrez norbaiti gure asmoen berri ematea aipatzen dute.

Kontuz ibili, baita kobagatik ere

Baina norberaren osasuna ez ezik, kobarena ere zaindu beharra dago. Hain kobazulo turistiko gutxi egotearen arrazoi nagusia, izan ere, barruan dagoena babesteko premia da. Urteak behar dira leize batek jendetzak jasan ditzakeen aztertze-ko. “Kobak nola ‘arnasten’ duen jakin behar da”, dio Arantza Aranburuk, “eta nola eragiten duen gure hatsaren CO₂ak”.

Baina arriskua arnas kontuez harago doa. Extremadurako (Espainia) koba turistiko ospetsu baten kasua kontatu digu Aranburuk: bisitaldi batean, ume batek, ondoezik, botaka egin zuen. Ostiraleko azken bisita zen, eta garbiketa lanak astelehen goizerako uztea erabaki zuten. Asteburua nahikoa izan zuten bakterioek inguruko oreka hauskorra hausteko; gaur egun, koba itxita dago, eta antibiotiko bidez ere ez dute lortu bakterioak akabatzea.

Tripako mina izan zuen umearena barkagarria da, beste gauza batzuk ez hainbeste. “Tamalez, batzuetan koba ezezagun batean sartzen gara eta handik gutxira, itzultzean, ikusten dugu norbaitek triskantza egin

duela”, diosku, atsekabetuta, Javi Morenok. Estalak tita eraman eta haren orde zaborra uztea ez da kobara sartzeko plan onena, are gutxiago kontuan hartuta estalak tita bera zabor bilakatuko dela pare bat egun igaro ostean. Aranburuk dioenez, kobazulo barruko gauzak kobazulo barruan baino ez dira xarmagarriak. ■



Bisita tu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune parte-
hartzaila.

Goldaratz (Nafarroa)
LOPERENA
ETXEBERRI
landetxea

© 948 503 238
casaetxeberri@gmail.com

MANU
Automekanika

Dieseleen berezitua
IAT aurreko errebisioa

Ubarburu Plaza 13, behea
27. poligonoa - Martutene

20014 DONOSTIA
manuflanda@gmail.com

Basoaren belarriak

URTEKO EGUN LUZEENEN sasoi honetan, baratze, soro, belaze, sagasti eta abarretako lanak aurreratuta izanez gero, mendi-gailurrretara igotzeko gogoia pizten du giroak. Laster, egunak laburtu eta laburtu hasi ahala, etorriko dira udako egun beroenak, eta, tontorrerako bidea hartu ordez, erreka zulo eta basoetako bidezidorrak kilikagarriagoak izango dira. Baita idazleentzat ere. Kinto Horazio Flako (K.a. 65-8) poeta erromatar errealista eta praktikoak ederki esan zuen: “Idazleek, den-denek, salbuespenik gabe, basoak maite dituzte”. Berarena, behintzat, ulergarria da, eguneko uztaren zale porrokatua zen, *Carpe diem*.

Basoan, bere lana irakurriz gero, baten batek entzungo duela badaki idazleak, hainbeste izaki bizi da bertan. Basoak belarriak dituela esan ohi da... Europako kultura ugaritan txertatutako sinesmen hori John Heywood (1497-1580) poeta musikariak idatziz zuen: “Basoak belarriak ditu, eta landak begiak”.

Botanikan eta erlijioetan jakitunetan jakintsua zen Jacques Brosse (1922-2008) filosofo frantziarrak basoari buruzko idatzi ederrak sortu zituen. Haietako batean jaso zuen garai bateko elizgizonen latinez *Aures sunt nemoris* esaten zutela, basoak belarriak dituela, alegia. Baso soila adierazteko *silva* edo



JOHN ROBERT COZENS

Nemi aintzira, XVIII. mendeko margolan batean.

lucus erabili beharrean *Nemus*, baso sakratua, erabiltzen zuten. Hori irakurtzen, kaskezurreko oroimenaren txokoa iraulika hasi zait: Italiako Genzano di Eroma herrian, duela urte batzuk, “gaztetxe” bateko ameslari batzuen asmo abangoardista: lorategi botaniko abandonatu baten berreskurapena zela medio, jendartearen dinamika, gaixo eta baztertuen integrazioa, sormena talde lanean sustatzea, ondarea aintzat hartzea eta abar aberats bati ekiten. Haiekin elkarlanean ari nintzela, ondoko aintzira baten inguruko basoan, ibilaldi bat, gauez. Tarteka jendeak bere kontuak bestei kontatzen. Italie-

raz, zipitzik ere ez nuen harrapatzen, baina ikaragarritzko xarma sortu zen. Nemi aintzira da, sumendi baten barruan. Diana ehizaren jainkosari eskainitako tenplu bat zen bertan. Baita Kaligulak eraikitako bi ontzi erraldoi ere: bata jainkosarentzat, bestea bereztzat. Nemus, baso sakratutik dator Nemi. Gaur jabetu naiz: Europako baso sakratu ezagunenean ibili ginen... Basoko oroilorea (*Myosotis sylvatica*), oroitzapenak mugitzen dituen, oraintxe da lore. Gure idazleenak entzuten. Armiamak bezala: milioi erdi bat baso hektareako. ■



700

Otasa deituriko ogia egiten zen lehen. Gaur zekale ogia deitzen zaio. Osasunerako onenetakoa, inondik ere. Zekalea, *Secale cereale*, belar motzean ohitutakoa, lurrari etekin onena kentzen saiatzen da. Larrekia. Burua edo buruxka metrotik gora garatzen du, luzeenak 1,80 ingurukoak. Buruxkan 180 bat ale emango ditu, 60-70 gramo. Horretarako 700 metro osatzeko adinako sustrai sarea zabaldua izango du. ■



Norberaren garuna jardunean ikustea posible da


HAINBAT LABORATEGIK Mind-Mirror sistema sortu dute garunaren jardura ikusteko. Sistema horretan bi teknologia motak egiten dute bat: errealitate areagotuko teknikak eta denbora errealeko elektroentzefalograma teknikak (EEG).

Hainbat patologia aztertzeko edo berreziketan erabiltzeko balio duen sistemaren funtzionamendua honelakoa da: erabiltzaileak elektrodoak dituen EEG kaskoa kokatzen du buruan, eta 3D kamera batek haren irudia erakusten du monitore batean.

Elektrodoek hartzen duten garun-jarduera, monitorean erabiltzailearen irudiaren gainean zehatz-mehatz kokatuta dagoen garun birtual batera proiektatzen da. Horrela, erabiltzaileak bere aurpegiaren gainean garun bat ikusten du, eta kaskotik bidalitako informazioak eragiten dituen kolore aldaketak ere bai.

Sistemak denbora errealean funtzionatzen duenez oso garbi nabaritzen dira lasaitasunaldiak, edota mota bateko zein besteko pentsamenduekin bat egiten dutenak.

Oraingoz medikuntza-aplikazioak izango dira teknika horren helburu nagusiak, baina bidea berehala zabaltzea espero da, norberaren emozioen kontrolerako heziketan adibidez. ■



JENS LANGNER



ttiki.com/64833
(Euskaraz)

Izotz galera izugarria Antartidaren mendebaldean

Antartidaren mendebaldean izotz zati handiak galtzen ari diren sei glaziarrek osorik urtuko balira, itsas mailak 1,2 metro egingo luke gora. Glaziar horiek urte batzuk daramatzate izotza galtzen, baina azken bi urteotan azkartu egin da kontinentearekiko bereizketa.

ttiki.com/64834
(Gaztelaniaz)

Aire kutsadura haztearen eta alergien arteko lotura

Kutsadura atmosferikoak udaberrian dituen hazkundeak, polena kantitate handietan garraiatzeaz gain, haren egitura ere eralda dezake, eta horrek alergiak areagotzen ditu. Izan ere, polen aleak txikiago bihurtu daitezke, eta ondorioz errazago sartzen dira geure arnas aparatuetara.

ttiki.com/64835
(Frantsesez)

Marrazoen antigorputzak, giza minbizietan aplikagarri?

ALBERT KOK-CC BY SA



MARRAZOEK urea kantitate handia dute odolean eta horrek ur gaziko ingurunean gerta daitekeen desidratazioa eragotzen du. Gizakiaren kasuan, aldiz, odolean urea sortzeak antigorputzak suntsitzen ditu.

Hainbat ikerlari marrazoen antigorputzak aztertzen ari dira, urea dagoen inguruan irauteko mekanismoa ezagutu nahian, eta badirudi

di zenbait aztarna aurkitu dutela. Zehazki, antigorputzetan detektatutako sodio kantitate handia. Mekanismo hori ugaztuenengan aplikatzen hasi dira eta oso emaitza onak lortu dituzte orain arte, laborategian bederen. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16


Heriotza Beltzak berdinduta

NAFARROAKO ERRESUMA, 1348ko maiatza eta ekaina. Izurri Beltza erresuman sartu zen, iparraldetik. Aurreko urteetan ohi baino euri gehiago egin zuen Nafarroan; ondorioz, 1346 eta 1347ko uztak oso kaxkarrak izan ziren eta goseteak hartu zuen erresuma. Epidemiak zabaltzeko inguru ezin hobe aurkitu zuen: nafarrak goseak ahulduta zeuden eta hezetasun eta tenperatura baldintzek hedapena bizkortu zuten.

Zaila da Heriotza Beltzak zenbat hildako eragin zituen kalkulatzeko. Europarren %30 hil omen zituen, hau da, 25 milioi pertsona inguru, eta beste 40-60 pertsona Asian. Portzentajea handiagoa izan zen Nafarroan; Peio J. Monteano historialariaren arabera, biztanleen erdiak hil ziren izurriak jota, 140.000 pertsona inguru.

Horrenbestez, Nafarroa Izurri Beltzak gogorren jotako lurraldeetako bat izan zen. Baina urte horietan, ez erresuma goseak zigortu zuenean, ez epidemiak errematatu zuenean, Nafarroako erregina ez zen bere erresumara hurbildu ere egin.

1328an, Nafarroako eta Frantziako errege Karlos hil zenean, ondorengotzari buruzko eztabaida piztu zen. Nafarrek Frantziatik bereizteko baliatu zuten egoera hura, eta maiatzaren 1ean gorteek Nafarroako errege-erregina izendatu zituzten Luis X.a Frantziakoaren alaba Joana eta haren senar Filipe Evreuxekoa. Filipe VI.a Frantziakoak koroatzea onartuko zuen, baldin eta



Izurri Beltza, Toggenburgeko Bibliaren arabera (1411). Izurriak 140.000 nafar inguru hil zituen, horien artean Joana II.a erregina.

senar-emazteek Frantziako tronuari betiko uko egiten bazioten. Azkenean, baldintza onartuta, 1329ko martxoaren 5ean Nafarroako Joana II.ak eta Filipe III.ak karguaren zina egin zuten Iruñean. Joanak erresuma lehenengoz eta azkenekoz zapaldu zuen orduan.

Filipe III.a beste behin izan zen Nafarroan, 1343an. Alfons XI.a Gaztelakoaren aliatua izanik, Iberiaer penintsulako Errekorkistan parte hartu zuen Nafarroako erregeak. Nafarroan armada bildu

eta Granadako Erresumara abiatu zen berehala. Urte hartan hil zen, Algecirasko setioan.

Senarra hil ondoren Joana II.ak Nafarroan agintzen jarraitu zuen, urrutitik, posta bidez. Ez zen sekula Nafarroara itzuli. Parisetik gertu bizi zen, Brévaleko gazteluan. Ez zen toki txarra Izurri Beltza saihesteko. Epidemiak herritar txiroenei eragin zien bereziki, osasun ahulena zutenei, hiribilduetan metatuta higiene baldintza kaxkarretan bizi zirenei. Bere erresumatik mila kilometrorra, gazteluan bakartuta, erreginak heriotza engainatzeko aukera handiagoak zituen bere mendekoei baino, itxura batean. Baina 1349ko urriaren 6an hil zen hura, gaitzak jota.

Heriotzak denak berdintzen omen gaitu. Heriotza Beltzak behintzat Nafarroako erregina absentea bere mendekoen erdiekin berdindu zuen. ■



Arrastoak

Viva V.E.R.D.I.



GIUSEPPE VERDIK *Nabucco* opera estreinatu zuenean, 1842an, Garibaldi, Vittorio Emanuele II.a Saboiakoa eta haien jarraitzaileak Italia batzeko ahaleginetan ari ziren. Eta Verdik, nahi gabe, austriarren aurkako borroka horri soinu banda jarri zion *Nabucco*ri esker; “Va pensiero, sull'ali dorate” italiar *risorgimento*aren himno bihurtu zen. Eta kaleak

“Viva Verdi!” oihuz eta pintaketaz bete ziren. Baina leloak ez zuen soilik konpositorearekiko zaletasuna adierazten; austriarren zentsura saihesteko akronimoa zen. Benetan, “Viva Vittorio Emanuele Re d'Italia” esan nahi zuen. Leloak adierazitako nahia 1861ean gauzatu zen, Vittorio Emanuele Italia batuko errege izendatu zutenean. ■

«Aurreko legeekin gai izan bagara gure curriculuma garatzeko, oraingoan ere lortuko dugu»

Euskal Eskola Publikoaren jai bezperatan, LOMCEz, desobedientziaren ondorioez, azpiegiturez, hizkuntz ereduez, haurreskolaz, unibertsitateaz... galdetu diogu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburu Cristina Uriarteri (Hondarribia, 1961).

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Dani Blanco

Azpiegiturretan inbertsio falta nabaria dagoela salatu dute hainbat ikasle-txek. Krisi garaiotan, zeintzuk dira Hezkuntzako lehentasunak diru partidetan?

Ikasle eta irakasleei eragiten dienak du lehentasuna: formakuntza, martxan ditugun proiektuak... Azpiegiturak oso inportanteak dira, baina bigarren lerro batean jarri ditugu, bestea babestea hobetsi dugulako; "pertsona helburu" dio gure leloak, eta irakasle eta ikasleen baldintzak mantentzea izan da gure lehentasuna, ratioak eta abar.

Haurreskoletako matrikula gurasoek diru-sarreraren arabera ordaintzea ari zarete aztertzen. Aurrerapausoa da, sindikatuak eskatzen duten haurreskolen doakotasunerantz?

Gaur egungo egoera ekonomikoan, gure apustua izan da haur hezkuntza mantentzeko familiak laguntzea, euren egoeraren arabera tasak egokituz. Estatuan eta Europan hori da jarraitzen ari diren bidea, eta hori egin dezakegun hausnartuko dugu. Doakotasuna, dena den, ez dago mahai gainean, hau ez delako derri-gorrezko hezkuntza, eta beste tokietan ere ez da doan.

Euskal curriculuma garatzeko, hainbat eragilerekin elkarlanean martxan duzue Heziberri 2020. Nahikoa adostasun lortuko duzuelakoan zaude?

Hiru egitasmo edo pausotan oinarritutako plana da Heziberri. Lehenengo bukatu dugu eta adostasuna lortu da itunpeko eta publikoko eragileen artean: gure eredu pedagogikoaren markoa finkatu dugu, ikaslearen irteera profila eta erabiliko diren metodologiak. Denon artean lerro nagusiak jarri ditugu, nora jo nahi dugun jakiteko. Konpetentziak hartu dira oinarri, ebaluazioen

“Egia da Kataluniako eta Andaluziako gobernuek planto egin dutela? Gauza bat dira adierazpenak, eta beste bat egiten dena, eta gobernu horiek guri galdetzen digute”

garrantzia azpimarratu da, irakasleen formakuntza, hizkuntza, materialak, aniztasuna, ekitatea... Orain curriculum horren dekretuak presatu behar ditugu hurrengo ikasturterako. Abiatu dugu dagoeneko prozesu hori eta eragile ugari ari da parte hartzen; eragile sozial eta politikoen adostasuna ere bilatu nahi dugu. Heziberri atera nahi dugu, baina atera nahi dugu adostasun zabal batekin, eta badakigu irizpide ezberdinak daudela, baina bitartekari lana egingo dugu, etorkizunean zer nolako ikasleak nahi ditugun

denon artean erabakitzeko. Hirugarren pausoa legea da: batzuek lehenago nahi dute, bestetuek beranduago, baina lege bat beharrezkoa da, eredu pedagogikoari eta dekretuei markoa jartzeko, eta hori ere adostu egin beharko da. Orain arte denek hartu dute parte, iritzia eman ez eta ekarpenak eginez, eta oso lan polita egiten ari gara. Gai batzuetan adostasuna errazagoa izango dela beste batzuetan baino? Agian bai, baina denok helburu bera daukagu: dekretuak ateratzea, nahitaez.

Hain juxtu, Heziberriren lehenengo bilerara ez zenuela ikasle ordezkariak deitu kritikatu dute ikasleek eurek. Ikasleei zuzendutako erabakiak beraiei iritzia kontuan hartu gabe hartzen direla kexatu izan dira.

Horregatik bereizi genituen hiru egitasmo edo pauso Heziberriren barruan. Lehenengo egitasmoa oso pedagogikoa izan da, eta beraz maila pedagogiko batean landu behar zela ikusi genuen, batez ere zentroak eta irakasleak zirela parte hartu behar zutenak. Bigarren eta hirugarren egitasmoetan arauak sortuko dira (dekretuak eta legea) eta horietan denak daude gonbidatuta parte hartzera.

Baina ikastetxe eta unibertsitateko kontseiluetan ikasleek ez dutela ordezkari nahikorik diote Ikasle Abertzaleek.



“Unibertsitatean ‘ondorio larriak’ baldin badaude, ez da gobernuak diru gutxi jarri duelako, finantzabide gehiago ditu unibertsitateak, eta beste leku batzuetan ere izango ditu arazoak. Egoera larria? Bai, larriagoak badaude”.

Unibertsitate kontseiluan nik uste badaukatela beraien parte-hartzea eta eragina...

EHUko kontseiluaren %51 irakasleek osatzen dute...

Bai, baina neurtu behar da organo bakoitza zertarako den. Irakasleak egon badaude eta uste dut lan inportantea egiten dutela. Parte-hartze handiagoa behar dutela? Unibertsitatearen kasuan bere eremuko erabakia da eta antzerakoa da toki guztietan. Eta eskola kontseiluan ere egon badaude ikasle ordezkariak. Sailburu daramadan denbora honetan behintzat ez dut jaso kezarik, ordezkatuta sentitzen ez direla esanez.

Heziberri aurrera doa, baina baita LOMCE ere. Eragile ugari ez du ulertu zergatik Jaurlaritzak ez duen lege horren aurrean planto egin, Kataluniako edo Andaluziako gobernuak bezala...

Baina egia da planto egin dutela? Gauza bat dira adierazpenak, eta

beste bat egiten dena. Eta gai honetan haiekin leku beretan egiten dut topo eta egiten ari dira gu egiten ari garena, ezer desberdinik ez. Legea bere bidea egiten ari da eta ezin diogu uko egin, kontra gauden arren legea bete egin behar da, baina behin eta berriz esan dugu: lege horren barruan guk gure hezkuntza sistema babestuko dugu eta berau hobetzeko lanean ari gara. Koherente izan gara beti esan dugunarekin. Eta are gehiago, gobernu horiek guri galdetzen digute ea zer egiten ari garen eta guri begira daude, interesa dute gure lanean.

Dena den, Werten jarrera ikusita, uste duzu negoziaketak eraginkorrak izango direla? Zer da negoziaketa horien bidez bermatu nahi diren gutxiengoak?

Ez daukat esperantza handirik. LOMCEk puntu asko ditu eta askorekin ez gaude ados, Madrilgo Gobernuarekin adostu dugu hizkuntza kudeaketari buruzko dekretua ez

aplikatzea EAEn, baina gainerako guztian ez dugu adostasunik lortu. Horregatik, legearen 19 artikuluri helegitea jarri nahi diegu Konstituzio Auzitegian. Eta bermatu beharreko gutxiengoak dira, batez ere, curriculum eta ebaluazio sistema, ez delako onargarria curriculumaren %50a Madrilgo Gobernuaren esku egotea eta kanpo-ebaluazioak eurek kontrolatzea. Beste arlo batzuei ere jarriko diegu helegitea: Lanbide Heziketa, zentroen autonomia, eskola kontseilua... Aspalditik gureak diren konpetentziak zainpatzen ditu LOMCEk.

Eta zer ekarriko du helegiteak jartzeak?

Lehenik eta behin, esatea ez gaude la ados, Konstituzioaren aurkakoa delako eta gure konpetentziak zapaltzen dituelako. Hori noiz ebatziko den, hiru urte barru edo zortzi urte barru? Ez dakigu.

Eta ebatzi bitartean...

LOMCE ezarri beharko litzateke.



niari lotua, edo lanean ari gara lotua egon ez dadin.

Denbora irabaztea da Jaurlaritzaren estrategietako bat? LOMCE etorkizunik gabeko legea dela esan da...

Urtetan egongo den lege bat izango dela uste dut eta horregatik lan egin behar dugu ez bakarrik denbora irabazteko, baizik eta gureari ekinez. Lortzen badugu legea bertan behera geratzea, primeran, baina zaila ikusten dut. Dena den, legearen muina, tripak aldatzeko esperantza badugu, LOMCEk aldaketak jasango dituen esperantza, [Espainiako Gobernuaren] hurrengo legegintzaldi batean.

LOMCE desobeditzeko gida aurkeztu dute hainbat eragilek, masiboki desobeditzera deituz. Ikastetxe gehienek erabakitzen dutena babes-tuko du Jaurlaritzak?

Guk argi daukagu legea bete egin behar dugula eta desobedientzia horren aurrean ikaslea defendatzea dagokigu. Desobedientziaren bidea jarraituz gero, zer gertatuko da ikaslearekin ikasturtea bukatzean? Legea bete egin behar dugu...

Baina Jaurlaritza ez da joango irakasleei espedientea irekitzera, ez?

... Zer egiten ari diren pentsatu beharko dute eurek ere. Denok toki berean egotea lortu behar dugu, eta ikaslea ongi atera dadila.

“LOMCE urtetan egongo den legea izango dela uste dut, baina hurrengo legegintzaldi batean legearen tripek aldaketak jasango dituzten esperantza badugu”

Lanbide Heziketa ere ukitu nahi du LOMCEk. EAEkoak prestigioa dauka eta eredu berri bat ezarri nahi duzue. Bai, Heziberri egiten ari garen moduan, Lanbide Heziketarako ere curriculuma prestatzen ari gara datoren ikasturterako. Lanbide Heziketaren laugarren plana eta lege berri bat ari gara lantzen. Hemengo mailaren adierazgarri da adibidez maia-

tzaren 28tik 30era Donostian egingo dugun Lanbide Heziketako Kongresua. Oso potentea izango da eta 42 estatutako ordezkariak etorriko dira, tartean Obamaren aholkulariak.

Unibertsitatean berriz, Boloniarekin matrikula prezioa igo dela, graduondokoak oso garestiak direla eta bekak murriztu direla salatu dute ikasleek.

Hori ez da egia. Matrikula tasak ez dira igo, urteko KPIa baino gehiago. Eta baldintzaren batzuk aldatu dira, baina bekak mantendu egin dira.

İñaki Goirizelaia EHUKo errektoreak esan du, duela gutxi, “oso ondorio larriak” ekarriko dituztela unibertsitateko finantzabidean eta inbertsioetan egindako murrizketek.

Iazkoarekiko, unibertsitate bideratutako aurrekontua 12 milioi euro igo da aurtan. Beraien aurreikuspenetan igoera handiagoa espero zutela? Beharbada bai, baina gauden egoera kontuan hartuta ere, iazko partida handitu dugu. Egoera ez da erraza inorentzat, eta “ondorio larriak” baldin badaude, ez da gobernuak diru gutxi jarri duelako, finantzabide gehiago ditu unibertsitateak, eta beste leku batzuetan ere izango ditu arazoak. Dena den, beste toki batzuekin konparatuz, egoera ez da hain txarra, egokitzea dagokigu. Egoera larria? Bai, larriagoak badaude.

Seaskak Herri Urratsen kritikatu zuen azken hiru urteotan Jaurlaritzatik diru-laguntza gutxi jaso duela: 400.000 euro Iparraldeko 60 elkarteren artean banatzeko.

Bai, eta gehiena Seaskara doa. Sartu ginenetik akordio hori mantendu dugu, esfortzu handia eginez, eta inportantea da jartzen dugun kopurua, egoerak ez baitigu laguntzen.

Berriki ezagutarazi dira 2013ko Diagnostikoaren Ebaluazio Orokorren emaitzak. Euskarri berria erabiltzeak emaitzak kaskartu dituela argudiatu duzu, baina gaztelanian hobera egin dute ikasleek eta euskara eta matematiketan okerrera. 10 urteko ikasleen herena ez da iritsi gutxieneko euskara mailara...

Emaitzokin harritu ginen eta zer gertatu den aurkitu nahian, kontu-

Kostatuko zaigu legea bertan behera geratzea. Beste kontu bat da lege horren moldaketak lortzea, beharbada Espainiako Gobernuaren hurrengo legegintzaldi batean... Badakigu lege hau [Espainiako Estatuaren ezarri dituzten] aurrekoak baino gogorragoa dela, baina aurreko seietan gai izan bagara gure curriculuma garatzeko, bide horretatik jarraituko dugu eta lortuko dugula uste dugu.

Iparraldean gertatzen dena gertatu liteke EAEn? Hau da, Seaskak Frantziatik ezarritako curriculum eta ikastetxeak berak garatutakoa uztartzen duen moduan, Espainiakoa eta EAEkoa garatzea ikastetxeek?

Ez du zerikusirik. Frantzia oso zentralizatuta dago, Parisek ezartzen du curriculum eta gero haiek zirrikituak dituzte ikasketak antolatzeko, baina ez daukate hemengo autonomia mailarik. Hemen Espainiako Gobernuak oinarritzko ikasgaiak sartuko ditu eta ikusi beharko dugu hori nola kudeatu, baina metodologiaren inguruan aukerak daude, sistema ez dago hain Espai-

ratu gara diozun moduan euskarrria ezberdina izan dela eta horrek eragina izan duela; aurreko emaitzekin konparaezinak dira, azterketaren baldintzak eta edukiak egokitu behar dira. Baina PISAko emaitzetan adibidez ikusi dugu ez dagoela alda-keta handirik aurrekoekiko.

Euskararena ez da kezkatzekoa?

Baina euskararena kezkatzekoa da orokorrean, eta V. Mapa Soziolinguistikoa ere ikusi dugu. Eskolak asko lagundu du euskara bultzatzen, baina hitz egitea, erabiltzea behar dugu, eta hori ez da eskolan bakarrik lortzen. Egia da ikusi dugula eskolan zenbat eta ordu gehiago egin euskaraz, emaitzak hobeak direla, eta bide horretatik jarraitu behar dugu.

“Euskararen Legeak dio familiek eskubidea dutela hizkuntza aukeratzeko eta horregatik mantentzen ditugu hiru ereduak, baina euskara da ardatza”

Celaák ezarri zuen proiektu hirueleduna bertan behera geratuko da eta hizkuntza ereduaren eskemara itzultzea da asmoa.

Proiektu hirueleduna esperientzia bat izan da eta amaitu egin da, ez da bertan behera geratu. Emaitza onak izan ditu, eta hori guztia kontuan hartuz, une hauetan Heziberrin definitzen ari gara hizkuntzen gaia nola landu. Bitartean, orain arte egin den ahalegina mantentzeko neurriak jartzen ari gara, irakasleen formakuntzarako laguntzak emanez-eta. Proiektu eleanitzak bultzatzearen alde gaude, baina ez gaude ados hirueledunak zioen moduan gutxienez ikastorduen %20 gaztelaniaz izan beharrekin.

Hala ere, Heziberrin dagoeneko zehaztu duzuenaren arabera, A, B

eta D ereduak mantentzea da asmoa, euskara ardatz.

Hori da oinarria. Euskararen Legeak dio hizkuntza aukeratzeko familiek duten eskubidea bermatu behar dela, bi hizkuntza ofizial ditugulako, eta horregatik mantentzen ditugu hiru ereduak, baina gure asmoa da hortik abiatuta euskara bultzatzea, eta A ereduko zentroetan euskara pixka bat gehiago sartzea proposatu dugu, legeak aukera hori ematen baitigu.

B eredua ere moldatuko litzateke?

B eredua ez dago moldatu beharrik, malgutasun handia ematen duelako zentroak berak euskara, gaztelania edo ingelesa gehiago edo gutxiago sar dezan. B ereduaz dioguna da ingelesa gehiago sartzen bada, ez dadila izan euskara kentzeko.

Hezkidetzeta eta Genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Plan interesgarria jarri duzue martxan.

50 ikastetxetan ari dira lantzen, eta hurrengo ikasturterako 100 daude aurreikusita, 50 publiko eta 50 itunpeko. Oso ondo ari da funtzionatzen, irakasleak oso inplikaturik daude eta eskaera izugarria izan da hasieratik.

Hezkuntzaren egonkortasuna bermatzeko, alderdi politikoen arteko Gutxieneko Akordioa aspaldiko eskaera da.

Heziberrin hori ari gara lantzen. Estatuan zazpi hezkuntza lege atera dituzte, baina Euskadin beti lortu dugu egonkortasun bat, adostasun zabalean egiten dugulako lan, hezkuntza eta gizarte eragileekin batera. Eta Heziberrin ere horri heldu nahi diogu: adostasuna lortu badugu curriculum zein izan behar den zehazterakoan, adostasuna lortu behar dugu —eta horretarako lan egingo dugu— lege bat lortzeko. Legea alderdien arteko akordioarekin lortu nahi da eta badakigu ez dela erraza izango, baina denok dugu helburu bera: gure hezkuntza sistemaren alde lan egitea. ■



VITORIA
GASTEIZ
green capital



Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

IKUSI, ENTZUN, IKASI...

Bidaiek ez dute bueltarik

Itziar Rekalde
Ignacio Aldecoa kultura etxean
Ekainak 12, 19:30

Ilargiaren erregina (hilekoari buruzko ikastaroa)

Gauekoak-Mintzalaguna
Aldabe gizarte etxea
Ekainak 14, 18:30

KALDEARTE

Bertsol Haritza

Lanku
Sekuoia-erregina (Magdalena kalea)
Ekainak 8, 12:00etan eta 17:30

Irakurritz

Shakti Olaizola
Probintzia plaza
Ekainak 8, 18:30

DANTZA PLAZAN

Ekainak 6
Plaza Berrian, 20:00
Ekainak 20
Sefarad plazan (Judimendi), 20:00

X-TRACLUB

Zumba

Lantegia
Hegoalde gizarte etxea
Ekainak 8, 18:00-20:00. 3,40€

101 Gasteiz + askaria

Ginkana
Andre Maria Zuriaren plaza
Ekainak 14, 17:30-20:30. 5,20€

Hendaia, egun bat hondartzan

Txangoa
Ekainak 22, 10:00-19:00. 15€

AGENDA TXIKIA

Sentitu, Pentsatu, Ekin!

Pirritx, Porrotx eta Marimotots
Principal antzokia
Ekainak 13, 18:00. 6€

IGANDEAK JAI,

Familia giroan euskaraz
Ekainak 29, Falerina lorategia
Maddi Pirata
Ane Monna, Oskola eta Karramarro
17:00
Piraten ginkana
18:00

GIZARTE ETXE ETA KIROL INSTALAZIOETAKO UDAKO KANPAINA

Udako ikastaro eta jardueretan izena emateko epea irekita ekainaren 11tik aurrera

_Maite duzun hura, euskarazi!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

«Nafarroan euskara galtzea eta euskara izan denik ere ahaztea segidan etorri dira sarri»

Euskal Filologian lizentziaduna, irakasle da Gorka Lekaroz (Donostia, 1969). Lagun ditu teknologia berriak, are, liluratzen dutela dio. Informazioa eskuratzeko ahalmena, hura ongi iragaztea. Sare sozialak eta blogak eskolako lanean erabili zalea da, *Lingua Navarrorum* bloga abiarazi zuen iragan urteko urtarileko egun batez eta, bertan, bistara ekarri digu Nafarroako herri askotan euskarak egin duen bidea, jakingarri irakurgarri parrasta.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco



“Nafarroak euskaldun gehiago bezainbeste behar ditu euskara ikasi ez arren hizkuntza naturaltasunez eta konnotazio ezkorrik gabe bizi duten erdaldunak, hau da, biharko belaunaldi euskaldunago baten bideratzaile izan daitezkeenak”.

Lingua Vasconum, Lingua Navarrorum, zer arraroa, euskararik gabe, Nafarroa. Horixe 1992an Nafarroa Oinezek Bianan Bernardo Atxagaren kantuan izan zuen leloak. Zure blog ederrak ere betiko izen horixe, 1167. urteko *Lingua Navarrorum*...

Bai, *Lingua Navarrorum*... Ez da oso originala! Huraxe etorri zitzaidan lehenik gogora. Garai batean, Erdi Aroan, hizkuntza-balioa omen zuen ‘nafar’ hitzak. Navarro euskaraz mintzo zena zen. Gauzak asko aldatu dira, Nafarroa ez da euskara baka-

rrik, baina ez dago Nafarroa ulertzerik, ez atzo ez gaur, euskararik gabe. Nik ez nuke nahi biharko nafar askok euskara gauza arrotz edo desatsegintzat jotzerik. Are gutxiago euskara behinola berezko hizkuntza izan zuten eremuko bizilagunek.

Joan den udaberrian, Ollaran ibarreko adineko emakume batek esan zidan bazekiela bere herrian euskaraz ere hitz egin zela “duela lau edo bost mende”. Emakume hura jaio zenean artean bizirik ziren haraneko azken euskaldun zaharrak. Nafarroan euskara galtzea eta euskara izan denik ere ahaztea elkarren segidan etorri dira sarritan, baina blog honek mezu bat bidali nahi badu, hizkuntza ondarea maitatu eta zaintzeko gogoak ideologiaren gainetik egon beharko lukeela da, eta guztiok elkartu beharko gintuzkeela, euskaldun izan ala ez. Sinetsi nahi dut egunen batean nafar guztiek sentituko dutela euskara beraiek ere aberasten dituen balio gisa.

Zer dugu zure blog hau?

Nafarroa eta euskara lotzen dituzten gaien inguruko txokoa izan nahi du. Helmuga hizkuntza bera da: euskararen historia, iraupen eta galerarekin zerikusia duten testuak dira nagusi, baina euskal mintzoeen egungo mugek ere badute tartea, hau da, euskara-nafarra paperean nahiz sarean ezagutzeko baliabideek eta beste zenbait alorrek. Ez da sobera blog zaharra, duela urtebete eskas hasi bainintzen honetan. Helburua, lehenik eta behin, niri sarean aurkitzea gustatuko litzaidakeen webgunea edo antzeko zerbait sortzea izan zen. Egindakoarekin pozik nago, eta lehendabiziko helburu hori betetzen ari naizela uste dut. Beste helburua zen Nafarroa eta euskara ardatz dituzten hainbat jakingai objektibotasunez aurkeztea, eta nirea bezalako zaletasuna duenari txoko interesgarria eskaintzea. Hori lortzen ari naizen, bestek esan behar!

Jakin-minez jo dugu bertara. Ezinago interesgarri zaigu zure bloga. Nola antolatu ohi duzu delako blog hau? Badira sarrerak, badira testuak, badira argazkiak...

Harremana poz

“Bloga neuk sortua da eta sarrera guztiak ere nireak dira, baina jende mordoxka baten laguntza izan dut hilabete hauetan. E-maila askoz pobreagoa izango zen bestela. Sarritan ibili naiz han eta hemen informazio eske euskararen mugak zehaztu asmoz edota azken euskaldun zaharrei buruzko albiste bila, eta toki askotan bultzada ederra eman didate: Ultzaman, Lizoainen, antzinako Arriasoitín, Ollaranen, Ezkabarten, Arakilen, Erronkarin... Azken haran hori dela-eta bi

lagun aipatu nahi ditut, Gotzon Perez Artutx eta Dabid Lalana bidankoztarrak. Haien interes eta laguntzari esker Bidankozeko azken belaunaldi euskaldunaren inguruko xehetasun ugari bildu ahal izan ditut, herriko adinekoek oraindik gogoan zituztenak eta zenbait urte barru agian ahaztuko zirenak. Baina beraiek prestatu didate bidea, nik segitu besterik ez dut egin. Blogak Nafarroako euskaltzale askorekin jarri nau harremanetan. Hori da eman didan pozik handienetako bat”.

Hasieratik zenbait edukiren inguruan antolatu nuen: batetik, bertako mintzoa galdu duten zenbait herri eta ibarretako euskararen ibilbide historikoa laburtzeari ekin nion. Hogeiren bat herritako datuak aurkeztu ditut dagoeneko. Bestalde, antzinako idazle nafar batzuen biografia laburrak ere eskaini ditut. Euskararen mugen historia ere blogera eramaten saiatu

“Sare sozialak primerako lekua dira euskararen balioa aldarrikatzeko”

naiz, mintzo nafarren gaur egungoak zein diren azalduz eta denboran atzera joanda ezagutzen diren beste zaharrago batzuekin alderatuz. Bestelako edukiekin osatu dut hori dena: Nafarroa eta euskara lotzen dituzten albisteak, Nafarroako euskarari buruzko liburu edo web orrien aurkezpena, testu zahar batzuk sareztatzea...

Bistan denez, ikerketa du zure lanak oinarri. Euskara galdua duten herriak,

euskararen ibilbidea Nafarroan, testu zaharrak... Nondik abiatzen zara blogean ageri diren lekukotasunak erakusteko?

Landutako eduki gehienaren inguruan aldeztu aurretik ere bazegoen informazioa. Edota adituen ikerketak biltzen dira bertan. Azken hamarkadetan [Jose Maria] Jimeno Juriok eta beste zenbait ikerlek datu asko atera dituzte artxiboetatik eta euskara Nafarroan noiz, zenbat eta noraino hitz egin izan den agerian uzten ari diren albisteak gero eta gehiago dira. Kasu gehienetan bilaketa lan horren hango eta hemengo e-maila batzuk bildu eta elkarrekin jarri besterik ez dut egin, eskualde jakinei buruzko zenbait webgunetan –Izarbeibarren, Artzibarren...–, zatikako lanik badagoelako aurreratuta. Aldiz, Nafarroa osoko datuak elkarrekin biltzen dituen lekuri ez zegoen, nik dakidala behintzat. Zenbaitetan neure uztako zerbait ere gehitu dut. 2013an Nafarroako euskal mintzoeen hego-muga non zen zehazten saiatu naiz. Bereziki erakartzen nau euskara azken hamarkadetan galdu duten tokietan halako memoria historiko ahalegin

Babeslea: IVAP

 IVAP HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA  euskadi.net	Enplegu Publikoa Lan-eskaintzen harpidetza Lan-poltsak (Eusko Jaurlaritzak) Beste administrazioetako lan-eskaintzak Toki administrazioetako idazkaritza, kontabilitateak eta diruzaintza Hautaketak	Prestakuntza Administrazio orokorra Toki Administrazioak Foru aldundiak Beraritzako hizkuntza prestakuntza EUTU Prestakuntza jardueren homologazio prozedura	Euskara Euskara Ikastaroak Hizkuntza eskakizunak Erabileraren Planaren prestakuntza Argitalpenak (euskara) IZO - Itzulitzaile Zerbitzu Ofiziala
---	--	---	--



“Joan den udaberrian, Ollaran ibarreko adineko emakume batek esan zidan bazekiela bere herrian euskaraz ere hitz egin zela ‘duela lau edo bost mende’. Emakume hura jaio zenean, artean bizirik ziren haraneko azken euskaldun zaharrak”.

txiki bat egin eta azken euskaldun zaharrak zein eta noizkoak izan ziren argitzeak. Ibar batzuetan —Ollaranen eta Erronkarin, kasurako—, orain arte idatzita zegoena aberastu duten albiste berriak atera dira bide horretatik.

Nola ikusten duzu euskara, egun, Nafarroan, eta euskal herrietan?

Ni ez nago Nafarroan, Donostian naiz irakasle. Beraz, Nafarroan gertatzen denari sarritan begiratu arren ez naiz bertatik ikusten duenak bezala erantzuteko gauza. Baina beldur naiz, kanpotik begiratuta, behintzat, ez ote duen oraindik euskaltzale ez den nafar gehiegik euskara oso urrun eta arrotz sentitzen. Nafarroan euskararen inguruko zubigintza lan handia behar dute. Nire ustez, Nafarroak euskaldun gehiago bezainbeste behar ditu gaur euskara ikasi ez arren hiz-

kuntza naturaltasunez eta konnota-zio ezkorrik gabe bizi duten erdal-dunak, hau da, biharko belaunaldi euskaldunago baten bideratzaile izan daitezkeenak. Hor ere erein beharra dago, eta fruituak ezingo dira egun batetik bestera jaso. Baina badakit nire irakurketa okerrekoa izan daitekeela, errealitatea konplexua baita. Gipuzkoan bertan, Nafarroara joan beharrik gabe, errealitate urruna da euskara Donostiako nire ikasle zenbaitentzat.

Ez dago gaizki guri gogoraraztea... Eta zertan da gipuzkoar zentrismoa?

Ni periferiazalea naiz, euskarari dagokionez behintzat. Agian, horregatik dut mugak aztertzekeko interes hori, begirada bazterrean gertatutako gauzetan jartzeko gogo. Irakasle bezala ere hiri-giroko ikasle erdaldunekin gabiltzanoei euskararen muga-eremuetan aritzea dagokigu sarritan. Horregatik, ez dut uste zentrismoa zertan den esateko oso pertsona egokia naizenik.

Zure lanak harremanik —berdintasunik, ezberdintasunik...—, badu Joxemiel Bidadorrek edo Fernando Maiorak eginiko lanekin? Haien lan eta ahalegin finak etorri zaizkigu gogora zurea irakurrita.

Bidador, Maiora... izen potoloak dira horiek! Lan ederrak utzi zituen batak eta ikerketan sekulako ordu pila ematen ari da bestea; urruti ditut nik. Beharbada, agertu zuen dibulgazio-borondatean sentitzen dut gertu Bidador, eta antzinako agirietan hizkuntzaren arrastoak topatzeko duen irrikagatik erakartzen nau Maiorak. Altxor hutsa dira oraindik aurkitu ez diren euskarazko testu zahar guztiak, adituen esku

“Beldur naiz, ez ote duen oraindik euskaltzale ez den nafar gehiegik euskara oso urrun eta arrotz sentitzen. Nafarroan euskararen inguruko zubigintza lan handia behar dela uste dut”

jarri, aztertu edo plazaratu ez direnak, alegia. Zoritzarrez, batzuetan zakarrontzietan usteltzen uzten ditugun urre-printzak dira, baina, gordez gero, euskararen historia osatzen lagunduko digutenak.

Euskararen historia idazkizun da oraindik?

Ez dago osatua, jakina, baina Nafarroan behintzat, idazkizun dagoela baino gehiago, nik azpimarratuko nukeenez, idatzi denak dibulgazio-behar handia duela. Euskara mitoz eta aurreiritziz betetako eremua da oraindik; batzuenak zein besteenak. Ikerketa handiak egin dira Nafarroan euskararen historiaren inguruan. Lan horien bidez ikasitakoa gizartera helarazi —eta ez ohiko irakurleengana bakarrik—, eta euskararen inguruko topiko zaharrak erauzi beharra dago. Topikoen aurka objektibotasunean, seriotasunean eta dibulgazioan sinesten dut. Eta euskararen historia idazten jarraitu behar da, jakina, baina ez historia horrek gure alde aurreko ondorioak berrets ditzan, geure burua hobeto ezagutzeko baizik.

Kultura zientifikoa I. Jaialdian parte hartzen du zure blogak.

Hasiera-hasieratik erakarri ninduen proposamenak. Oso esperientzia ederra izaten ari da. Jon Mattin Matxain sekulako lana hartzen ari da jaialdia antolatzen eta bideratzen. Batetik, Matxainek berak adierazi bezala, “zientzien” eta “letren” arteko muga artifizial hori lausotzeko tresna ona delako. Bestetik, euskara horrelako zereginetan erabiltzea delako hizkuntzari egin diezaiokegun mesederik eta publizitaterik onena. Nire ustez, jakintza hedatzeko, erabiliz aldarrikatu behar da euskararen balioa, hizkuntza ezgauza dela eta ezer gutxitarako balio duela diotenaren aurrean. Eta, ohiko bide akademikoa baztertu gabe, sare sozialak primerako lekua dira horretarako, euskarak eremu berrietan ere egon beharra duelako, eta horrelako eremu birtualetan izan dezakeen muga bakarria euskaldunen beraien gogoia edo borondatea izango delako, ez beste ezer. ■



Bahea

Asier Sarasuak www.hirinet.net-en esanak:

“EITBko langile batzuk hamarkadak daramatzate lanean, eta orain, 2014. urtean, Eusko Legebiltzarrak mozio bat onartu du langile horien lanpostuak behin-betiko betetzen direnean, berehala euskara ez exijitzeko; horren orde, erratzasunak emango zaizkie datozen urteetan euskara ikasteko.

Euskalduntze sistemak ez du funtzionatu, eta ez du egingo. Gasteizen, 2014an, administrazio publikoetako langileek euskara ikasteko dituzten abantailak ezabatu behar direla uste dut. Hona hemen nire arrazoiak [jatorrizkoaren laburpena jaso dugu hemen]:

Hogeita hamar urte igaro dira euskara ofiziala denetik. 1980ko hamarkadan biztanleen gehiengo handi batek ez zekien euskara eta ikasteko aukera ere ez zuen eduki. Baina orduan zentzua izan zezakeen politikak 2014an ez dauka zentzurik. 30 urte nahiko dira hizkuntza bat ikasteko (ikasi nahi duenarentzat), eta erakunde publikoetan ‘hamarkadak’ daramatzaten langileek ‘hamarkadak’ eduki dituzte euskara ikasteko, horretarako borondatea izan balute.

1977-1978 ingurutik aurrera jaiotako haurren gurasoek bazekiten euska-

ra ofiziala zela. Beraz, orain 35-36 urtetik behera duen inori ez litzaioke eskaini beharko euskara ikasteko erratzasunik.

Ez du inolako zentzurik lanpostu berrietarako deialdietan hautagaiek ez edukitzea beteta lanpostu profilaren eskakizunak. Kazetari lanpostuetara aurkezteko, kazetaria izan behar da. Idazkari izateko, idazkaritza jakin behar da. Eta betebeharrak horiek lanpostura aurkeztu baino lehen eduki behar dira, ez ondoren.

Lehendik euskara dakigunok, bai etxean ikasi dugulako bai euskara maitatu eta horregatik ikasi dutelako bere kabuz, ez daukagu eskubide hori. Gure lanpostuetan beste ezagutza batzuk exijitzen dizkigute, agian ingelesa, agian beste zerbait, baina administrazioak ez digu ematen euskararekin ematen diren bezainbeste abantaila ezagutza berri horiek eskuratzeko.

Oraindik euskara ikasi ez dutenak, ikasi nahi izan ez dutenak dira, bai ez dutelako beharrezkoa ikusi, bai ideologikoki euskararen aurkako jarrera dutelako. Berdin dio erratzasun gehiago ematen zaien beste hogeitaz urte gehiagoz: ez dute ikasiko.



Izan dituzten abantaila eta erratzasun guztiei esker (hainbat urte libratuta euskara ikasteko, soldata kobratuta eta lanpostua hutsik utzita) bide horretatik euskara ikasi zuten askok, ez dute euskara erabiltzen administrazio publikoko lanean. Are gehiago: dagoeneko ez dira euskal hiztunak, euskara galduta baitaukate praktika ezaren ondorioz. Orain bakarrik faltako litzateke norbait langile horientzat bigarren euskalduntze erronda bat eskatzen hastea, adarjotzea totala izateko.

Administrazio publikoek kontratazio prozesu bati ekiten diotenean, hautagaiek elebidunak izan behar dute hasieratik. Horretarako, euskara titulu bat eskatzeak ez du arazoa konpontuko: hautatze prozesuak elebiduna izan behar du. Administrazioa langileok euskaraz zein gaztelaniaz erantzuteko prest egon behar dugu”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Gaindegia: 10 urte Euskal Herria erretratatzeko

GAINDEGIAK, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategiak, maiatzaren 29an hamar urte bete ditu Euskal Herria batzen eta egituratzen. Hainbat koloretako lagunak izan ziren Donostian Gaindegia sortu zutenak, alabaina, bazuten zerk batu. Euskal Herri osorako erakundea nahi zuten, sektore banaketak gainditu, Euskal Herria garatzeko gai estruktural eta estrategikoei buruz ezagutza eta eztabaida bultzatzeko. Hiru ardatz zituen: Euskal Herriaren argazki sozioekonomikoa egitea; hausnarketa eta eztabaida bultzatzea; eta sareak sortzea erraztea administrazio banaketa gainditzeko.

Zailtasunak zailtasun, hamar urte eta gero, Gaindegia izaera propioa eta aitortua du, eta teknikari talde gero eta egonkorragoa. Haren zerbitzuek eta diskurtsoek gero eta leku gehiago dute gizartean. Horri eskerrak, gaur egun hobeto ezagutu daiteke Euskal Herriko sozioekonomiaren argazki erreala. Gaindegia nahi

duenaren esku jartzen ditu Euskal Herriaren ezaugarri ekonomiko eta sozialak ezagutzeko bitartekoak. Arduradunek badakite zer dagoen egiteko; ekonomiari eta gizarteari dagokionez, Euskal Herria artikulatzeko moduez egon beharko luketen hausnarketak eta eztabaidak ahuldu egin dira.

Euskal Herrian, auzoko herrialdeetan eta munduan gertatzen ari diren aldaketa handiei aurre egiteko erreminta beharrezkoak eskura jartzeko konpromisoa hartu dute. Horregatik guztiagatik, hamargarren urteurrenean Gaindegia zoriontzea dagokigu, eta aurrera begira Euskal Herriaren argazkirik osoena egiten jarrai dezan opa diogu. Erakundeek aitor dezatela egiten duen lana, baita ordaindu ere.

Juan Mari Arregi



Bogotak nahi du Basura Cero, baina utziko ote diote?

Apiriletik berriro –ikusi behar noiz arte– Bogotako alkate da Gustavo Petro, martxoan Juan Manuel Santos Kolonbiako presidenteak kargutik kendu zuena. Petro ausartu da zaborren kudeaketa konpainia pribatuei kentzera. Mundu osoan bezala Kolonbian ere zerbitzu publikoetako enpresak alkate ezkertiarra jango luketenean dabilta.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

GUSTAVO PETRO BOGOTA HIRIKO alkatea honela mintzatu zen Canal Capital Bogota telebistan, galdetu ziotenean alde guztietatik jasotako egurrez: “Jipoia aurreikuspenetan zegoen, ez gintuen harritu. Bagenekien zenbait hedabidek eta horietako zenbait pertsonak nola jokatu zuten. Bagenekien nola jokatu zuten ‘zaborraren merkata’ deitzen den horretan indarra galtzen hasitakoan. Ezagutzen dugu azken hamarkadotan garbiketaz zerbitzua pribatizatu izanak ekarri duena, ez bakarrik Bogotan edo Kolonbian: aski duzu Interneten ‘Napoli’ ipintzea eta ohartuko zara gai honek zer nolako neurria daukan”.

Deklarazio horiek 2012ko abendu amaieran egin zituen Petrok. Aste bete lehenago, ordura arte Bogotako hondakinen kudeaketa egiten zuten enpresek hiru egunez eten zuten zabor bilketa hiriburu osoan, sekulako kaosa sortuz. Telebistan aitortu zuen berandu erreakzionatu zutela. Hala ere gaina hartu zion erasoari.

Enpresek ez zuten etsi eta aurkitu zuten alkateari kolpe gogorragoa emango zion mailua. Kolonbiako fiskal nagusiak enpresen salaketak kontutan harturik 2013ko abenduan ez legezkoztat jo zuen Petrok Bogotan zaborren kudeaketari ezarritako eskema berria. Hamabost

urtez kargu publikorik ezin eduki izatera kondenatu zuen. Martxoan Santos presidenteak kendu baina apirilean jarri behar izan du berriro, auzitegi gorenak erabaki arte zer egin alkatearen helegitearekin. Diote ekainean erabakiko dela.

Gustavo Petro (1960) Bogotako alkate da 2011z geroztik, Bogota Humana hautagaitzaren buru aurkezturik. Aurretik Polo Democrático Alternativo alderdiarekin diputatu eta senatari izana zen. Eta hori baino lehen, gaztetan, M-19 mugimendurekin gerrillan ibilia zen, *Aureliano* ezizena erabiliz –García Márquezen *Cien años de soledad* liburuko protagonistaren izena– taldea 1990ean Gobernuarekiko elkarriketa prozesu baten amaieran desagin zen arte.

Maureén Mayarekin batera idatzitako *Prohibido Olvidar* liburuan kontatu zuen Gustavo Petrok Kolonbiako kontrainsurgentziaren kontrako borrokan gerrillan bizitutakoa. Gero *¡Vamos a superar el Horror! Gustavo Petro y la nueva izquierda* elkarriketa liburuan azaldu du bere pentsamendu politikoa.

Berrikitan Euronews kateari laburbildu dizkio bere agintealdiko asmo eta lorpenak, tartean droga kontsumoa zigorgabetzea aldarrikatuz. Urrun dago drogaren kontrako gerra famatuaren eskemetatik:

Ezkerreko irudian, Bogota Humana talde politikoaren webgunetik hartua, Gustavo Petro alkatea zabor bilketako kamioi barrutik agur egiten. Ekainean jakingo da 7,5 milioi biztanleko hiriaren buru izaten jarraituko duen ala Alejandro Ordoñez prokuradoreak lortu duen kargutik botatzea, azken hamarkadetan Kolonbiako zerbitzu publiko pribatizatuekin negozioa egin duten enpresaburuen mesedetan. Poztuko litzateke William Velez Sierra, Bogotako garbiketaz bezala Kolonbiako beste hiri askotakoaz okupatzen zen konpainia handienaren eta herrialdeko elektrizitate enpresa handienaren jabea, Kolonbiako gizonik aberatsenetakoa. Eskuinean, plastikomendien artean, Nohra Padilla kaleko 14.000 birziklatzaileen lider ezaguna, iaz Goldman Price saria eman ziotena. Kaleko txatarrero eta traperook ekonomia formalean integratzea da Petrok ezarritako *Basura Cero* programaren ardatzetako bat.

“Bakeak etorri behar du loturik eredu politikoaren aldaketarekin, herritarrak gizartean barneratzearekin, Kolonbia demokratizatzearekin, baina narkotrafikoari irtenbideak ausardiaz bilatzearekin ere bai. Mundu mailako eztabaida baten parte da, zeren lehenbizi gizarte mailako berdintasunik eza gertatu zen, gero etorri zen bortizkeria eta beranduago narkotrafikoa, honek bere alde erabili du bortizkeria. Baina lehenbizikoa konpontzen ez badugu, bortizkeria sorrarazi zuena, ez dugu konponduko bigarrena ere, narkotrafikoa”.

Zaborren gerra Kolonbian

Petrok Bogotako alkate izateko agindu zuen “pakete sozialaren” barruan zetorren hondakinen kudeaketa aldatzea. Aspalditik konpainia pribatuen esku zegoenez, alde batetik enpresa publiko bat sortu zuen pribatuei konkurrentzia egiteko eta bestetik munduaren parte gehienetan bezala Bogotan ere zaborretatik bizi diren langile informalak normalizazio bidean sartzen hasi zen.

Zero Waste ideiak biltzen ditu hondakinak murriztuz zaborraren klase guztietako kalteak urritzeko estrategiak, gaikako bilketatik hasita, berrerabiltzea, birziklatzea eta abar. Baina Iparralde aberatsa ez



teak. 2012ko abenduan Bogota zaborretan itotzea erabaki zuten azken 20 urteetan zerbitzu publiko hori kudeatzen zuten enpresa pribatuek: Petrok alkatetzatiki arau berriak jarririk, enpresa publiko berriak jaten zien pribatuei merkatuaren zati on bat eta beste puska bat kaleko *txatarrero* eta *traperoek*. Konpainiek zabor-bilketa eten zuten hiru egunez.

Baina Bogota ez zen bihurtu Napoli, kaleko birziklatzaileek erabaki zutelako udalari laguntzea. Azpiegitura kaxkarrekin -kamioi handiak konpainienak dira- baina azkar antolatu zuten hondakin bilketa. Istilua handia izan zen, hala ere, eztabaidak ere bai. Denetan bezala han ere industriaren eta bankuen ugazabenak diren hedabide nagusiek zaborren gudua ongi bertu zuten.

Hura gainditu zuen, ordea, *Basura Cero* programak. Orduan auzitegitik egin zioten su. Artilleria gogorra gordetzen da fiskaltzetan, Espainian bezala Kolonbian. 15 urterako kargu publikorik eskurtzea debekatu zion Alejandro Ordoñez prokuradoreak. Gero goragoko auziak eten zuen erabakia, ikusiko da noiz arte.

Zerbitzu publikoen enpresak ez daude etekinak gutxitzeko. Hurbilago, Gipuzkoan, bankuek lapurren gisa GHKri saldutako *swaps* aferan kreditu pozoitsuon alde ari zen abokatuetako batek esan zion kazetari bati gaztelaniaz: "*Igual se creían que iban a salir de rositas*". Aldaketa nahi duenak larrutik pagatu-ko duela, alegia. ■



den mundu gehiengan hondakinetatik bizimodua ateratzen duten langileen bizi-baldintzak ere biltzen ditu. Filipinetatik Argentinara eta Mexikotik Indiara, pasaturik Egiptoko Zabaleen famatuen artetik, milaka behargin xumek bizi nahi du herritarrek bazter utzitako produktak berrerabiliz edo birziklatuz.

Zazpi milioi eta erdi biztanle dauzkian Bogotan 14.000 inguru dira kaleetan bezala zabortege nagusian paper, metal, plastiko eta abarren bilketan. Egunean zabortegira 1.500 tona gutxiago iristea beren meritua zenez (6.000 tona gehiago eramaten zituzten 2012an garbiketako konpainiek), langileok kudeaketa eskemaren barruan integratzeko promesa egin zuen Petro. Gaur

arte haietako 4.000 baino gehiagok lortu dute beren lanbidea ekonomia arautuan sartzea.

Reciclador hauen liderra Nohra Padilla da, 2013an Goldman saria -*Nobel Berdea* ere deitzen dioteman ziotena Rossano Ercolinirekin batera. Padillak lan handia egin du birziklatzaileak talde eta sindikatuetan biltzen. Alkatearen erabakiari adina zor zaio Padillaren ahaleginari Bogotan *Basura Cero* eskema berriarekin lortu izana birziklatzaileek beren lanaz bildutako materialak udalak prezio txukunetan ordaintzea.

Bogotako zaborren greba "*Crónicas de una lucha por la inclusión*" erreportajea kontatu du Women in Informal Employment: Globalizing and Organizing (WIEGO) elkar-





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Nola kontrolatzen da Kutxabank %30arekin?

KUTXABANK zer da orain? Zer izango da etorkizunean? Eta zer nahi dugu izatea? Ez da finantzatan aditua izan behar galderei erantzuteko, baina ezagutu behar dira auziaren klabeak eta eztabaida askatu behar da: Kutxabankek proiektu publikoa izan behar du ala pribatua?

Kutxabank gaur egun banku bat da, baina ezohiko bankua, hiru aurrezki kutxek osatutako bankua. Esan dezagun, finantzen mundu globalak eta finantza krisiak bultzatuta, Espainiako agintariek behartutako prozesuaren ondorioz, aurrezki kutxak banku bihurtzera bultzatu dituztela. Horren ondorioz, BBK, Kutxa eta Vital Kutxak beren negozioa Kutxabanken esku utzi zuten 2011n, baina haren akzio guztiak mantenduz (BBK-k %57, Kutxak %32 eta Vital Kutxak %11).

Legeen ustezko bultzadaz gain, estilo eta finantza filosofiaz ere egiten ari zen hau guzti hau, eta banku berrian Mario Fernandezek ordezkatu izan du estilo hori. Funtsen honakoa da: gaur egungo finantza munduan lehiakorra izan eta bizirauteko hazi egin behar da eta Kutxabank posizio onean dago hazteko eta lehitzeko. Nola? Bere baitan kapital pribatuari lekua egin. Sumatzen zen halakorik, baina otsailean publikoki jakinarazi zuen aurten hasiko zela bide hori. Fernandezek ez du zehaztu kapital pribatua jabegoaren zein ehunekora hel daitekeen, baina iradoki da %70era ere iritsi daitekeela. Beraz, %30a da BBK-k, Kutxak eta Vital Kutxak osatutako fundazioaren esku geratuko litzaitekeena.

Lehen begiratuan eskandalua itzela da, prozesu honetan oraindik ere proiektu publikoa den zer-

bait esku pribatueta jartzen delako. Bide hau sostengatzen dute EAJk, PSEk eta PPk, hauen ustez haztea ezinbestekoa delako eta biziraupenerako klabea delako. Gainera, zenbat eta handiagoa, negozio gehiago, irabazi gehiago, eta beraz, ekintza sozialerako diru gehiago.

ELA-K maiatza hasieran oso kritika gogorra kaleratu zuen eta txosten zabal baten bidez kritikatu du pribatizazioa. EAJk babestutako lapurreta litzatekeela salatu du. Txostena ELAren webgunean dago eta bere salaketa guztia argudiatzen da bertan. Jeltzaleek ere oso gogor erantzun zioten, baina argudioetan oinarritu eta txostenari erantzun beharrean, ELAk alderdi politiko bihurtu beharko lukeela erantzun zuen eta EH Bilduren tesietara lerratzea leporatzen zion. ELAren txostena irakurtzen duen edonork ikusiko du, aldiz, ELA oso kritiko agertu dela Bildurekin, honek 2011n Kutxabanken sorrerari baiezkota eman ziolako.

EAJ oraindik ez da sartu argudioei publikoki erantzutera eta Iñigo Urkullu lehendakaria beraren adierazpenak Mario Fernandezengan duten konfiantza osoa adieraztera mugatu dira. Baina, erbia altxa ondoren, Fernandezek ez du tiro bakarra bota eta ez da batere ezagutzen pribatizazio horren nondik norakoaz. Udazken hasierarako izango ei dira erantzunak eta prozesuaren nondik norakoak.

Pribatizazioaren aldekoen ustez, iazko abenduan Espainiak onartutako Aurrezki Kutxen eta Banka Fundazioen Legeak horretara bultzatzen du Kutxabank, baina ziur dira BBK-k, Kutxak eta Vital Kutxak osatutako fundazioak kontrola dezakeela bankua nahiz eta,


adibidez, jabegoaren %30 baino ez izan. Hori nola egiten den ez du inork azaldu eta, areago, ezta ere nola bermatzen daitekeen etorkizunean. Kapitalaren munduan ezinezkoa da gutxiengoarekin boterea kontrolatzea, une zehatz batean akaso bai, baina oro har ez. Hori begi bistakoa da. Pribatizazioaren aurkakoentzat aipatu legeak ez du horretara behartzen, ez behintzat bere garapena gehiago zehaztu arte, esate baterako, bankuen jabetzan %50etik gorako jabegoa duten bankuen kaudimenari buruzkoa zertan geratzen den finkatu arte (BBKren kasua, Kutxabanken %57 duelako).

EZTABAIDA zabal eta sakona behar da Kutxabanken etorkizunaz. Egun proiektu pribatua da dagoeneko, bere akziodunen menpe dagoena, baina bere akzioduna gaur gaurkoz, oraindik kontrol publikoan dago. CANekin gertatu dena hor dago, eta kasu desberdinak izanagatik ere, hura handitzea ere ezinbestekoa zen... dena galdu arte. Alemanian aurrezki kutxak txikiak dira, haien lurraldeetara lotuak daude eta ez dute inongo asmorik banku bihurtzeko eta handitzeko. Ez da ezinbestean handitu behar finantza munduan bizirauteko. Frantzia maileru kooperatiba txikien presentzia handia da eta Euskal Herrian ere beste finantza kooperatiba batzuk ez daude desagertzekotan. Eztabaida lau haizetara zabaltzea ezinbestekoa da. Orain, gainera, hauteskundeak pasatu dira eta hori posibleago da. Gizarte helduak tinko aldarrikatu beharko luke eztabaida, klase politiko arduratsuak hori bermatu beharko luke. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



Gametxo hotela

Bi lagunentzako
asteburu pasa

Gametxo auzoa
Ibarrangelu BIZKAIA

www.hotelgametxo.com

1

STM San Telmo Museoa



San Telmo Museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2



Inguru Abentura

Arritzagako Arroila jaitsiera
(Amezketak) (2. maila)
4 lagunentzako bina saio

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3



DE2EN BLUES BAND & THE BROKEN HORNS Groovin' the blues

5 CD opari

Gaztelupeko Hotsak
Soraluze, GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



Okatxu

komikia opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2414/2415. Argia)

A FUEGO NEGRO jatetxea

- Irati Arrieta Korta (Tolosa)

SAN TELMO MUSEOA

- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)
- Andoni Alba Salaberria (Iruñea)
- Xabier Zubizarreta Lasagabaster (Arrasate)

EUREKA! zientzia museoa

- Aitor Zuberogoitia Espilla (Durango)
- Hilario Berasategi Arrieta (Idiazabal)

KORRONTZI Cda

- Eneko Mairoz Ganboa (Orexa)
- Mattina Etxeberria Sagastume (Donostia)
- Ane Miren Alberdi Zubierrementeria (Eibar)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)
- Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo)

ARGIA kamiseta

- Gerardo Mendizabal Aizpuru (Hondarribia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea


gunea

argia



argia

ikus-entzunezkoen
EKOIZPENAK



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioak
- Promozio bideoak
- Dokumentalak
- Itzulpenak eta azpтитulazioak...

ARGIAko webgunearen eta sare sozialen bidez
zabalduko ditugu lanak

GURE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,
profesionaltasunez eta prezio onean

10 urteko esperientzia bideogintzan
eta **1.200 bideo** baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · ekoizpenak@argia.com